



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 1a

111. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Mendekotasun Legearen aplikazioa Nafarroan (2010-2012) izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Gantzerak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mendekotasun Legearen aplikazioa Nafarroan (2010-2012) izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, Mendekotasun Legearen aplikazioa Nafarroan (2010-2012) izenekoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mendekotasun Legearen aplikazioa Nafarroan (2010-2012) izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioa Estatutan eta Nafarroan (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Mendekotasuna dutenentzako babesaren alderdi orokorrak Estatuan eta Nafarroan (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Mendekotasuna kudeatzeko organoak Nafarroan (6. or.).</p> <p>III. Helburua, norainokoa eta mugak (7. or.).</p> <p>IV. Ondorioak eta aholkuak (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. 2011-2012 aldiko Foru Komunitateko eta Estatuko araudiaren berrikuspena (8. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Mendekotasun prestazioak baloratu, esleitu eta gauzatzeko prozedura (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Mendekotasuna Nafarroan aplikatzeari buruzko estatistika- eta aurrekontu-datuak (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Gomendioen jarraipena (10. or.).</p> <p>V. Egindako lanaren azterketa xehakaturia (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Estatuko eta Foru Komunitateko araudian 2011-2012 bitartean izandako aldaketen berrikuspena (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Mendekotasunagatiko prestazioak baloratu, esleitu eta gauzatzeko erabiltzen den administrazio prozeduraren berrikuspena (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Mendekotasuna Nafarroan aplikatzeari buruzko estatistika- eta aurrekontu-datuak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Kontuen Ganberaren 2011ko martxoko txostenean emandako aholkuen jarraipena (22. or.).</p> <p>1. eranskina. Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren (PANA) organigrama (23. or.).</p> <p>2. eranskina. Estatuko eta Foru Komunitateko 2011-2012 bitarteko araudiaren berrikuspen juridikoa (24. or.).</p> <p>3. eranskina. Mendekotasun prestazioak baloratu, esleitu eta gauzatzeko prozedura (30. or.).</p> <p>4. eranskina. Nafarroako populazioari buruzko estatistika datuak. Hirugarren adinari eta ezgaituei buruzko aipamen berezia (39. or.).</p> <p>5. eranskina. Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren estatistikak. 2013ko martxoaren 31ko egoera (42. or.).</p> |
|--|---|

I. SARRERA

2012ko ekainaren 13an Kontuen Ganberak Eledunen Batzarraren parlamentu-eskaria erregistratu zuen, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak sustatua, fiskalizazio-txostena egin zedin Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasorik dagoen Estatuko mendekotasun arloko legediaren aplikazioari eta betetzeari buruz.

Kontuen Ganberak 2011ko martxoan eman zuen beste txosten bat aipatzen da eskarian, gai berari buruzkoa, baina 2009an eta 2010eko lehen sei hilekoan jasotako datuekin egina. Orduetik aurrera izandako arau-aldaketak ere aipatzen dira, prestazioei, prestazioen finantzaketari eta abarrekoiei eragiten dietenak.

Horiek horrela, Parlamentuko Eledunen Batzarrak egokitzat jo du Ganberak gai hauei buruzko txostena egitea:

“... mendekotasunari buruzko Estatuko legediaren aplikazioari eta betetzeari buruzkoa –Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotzen da, 69/2008 Foru Dekretuaren bitartez–; halaber, Nafarroako 2010eko, 2011ko eta 2012ko aurrekontu orokorretan jasotako aurrekontu-ahaleginen bidez lortutako helburuei eta artatutako pertsona-kopuruari, prestazio eta laguntzak izapidetzeko epeei eta laguntza horiek emateari, indarrean dauden prestazioei eta indargabetutako prestazioei, eta zerbitzu zein prestazioak kudeatzeko ereduari buruzkoa ere. Txostenean orobat jasoko dira beste alderdi osagarri batzuk, baldin eta erakunde horren iritziz ezagutu eta jorratu beharrekoak bada...”.

Azken finean, Kontuen Ganberak 2011ko martxoan argitaratu zuen txostenean jasotako datuak eguneratzeko eskatu da. Hona hemen txosten hartako aholkuak:

- *Mendekotasuna babesteko kudeaketa-prozeduren hobekuntza-prozesuari jarraipena ematea.*
- *Aztertzea ea Nafarroako Mendekotasun Agentziaren gaur egungo egitura organikoa egokia ote den Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazio integraletik eratorritako beharrezanean aurre egiteko.*
- *Kostu-sistema egoki bat ezartzea, zerbitzuaren intentsitatea irizpide gisa harturik zentroetako mendekotasundun bakoitzeko gastu-zenbatekoari eutsi ahal izateko eta hirugarrenei kontra-jartzeko modukoa.*
- *Aurreko horrek eta dauden datu-baseen ustiapen informatikoak modua eman behar dute ezagutu ahal izateko mendekotasuna duen pertsona bakoitzak sorrarazten duen gastua eta haren diru-sarrerak, dela kuota edo kenkariengatik, dela Estatuko finantzaketarengatik.*
- *Aintzat hartu behar da aurreko guztia kontabilitateko edo kontabilitatez kanpoko sistema batean integratzearen egokitasuna; sistema horrek soil-soilik agertuko lituzke mendekotasunarekin loturiko gastuak eta diru-sarrerak, eta saldoak adieraziko luke Mendekotasunari buruzko Legeak Foru Ogasunari dakarkion emaitza...”.*

Eskariaren arabera 2012ko datuak jorratu behar direnez, lan hau 2013. urteko fiskalizazio-programan sartu da.

Kontu-ikuskaritzako bi teknikariz eta kontu-ikuskari batez osatutako talde batek egin du lana, martxoan eta apirilean. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administrazioen laguntza izan dugu.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean alderdi orokorrak deskribatzen dira, mendekotasuna dutenei Estatuan eta Nafarroan ematen zaien babesaren ingurukoak; hirugarrenean lanaren helburuak, norainokoa eta mugak azaltzen dira; ondorioak eta aholkuak laugarren epigrafean jaso dira; bosgarren epigrafean, azkenik, egindako lanaren azterketa zehatza aurkezten da.

Txostenaren bost eranskinek informazio osagarria dakarte gai hauek direla eta: Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren (PANA) organigrama, mendekotasunaren aplikazioari dagozkion 2011ko eta 2012ko Foru Komunitateko eta Estatuko arauen berrikuspena, mendekotasun prestazioak baloratu, esleitu eta gauzatzeko prozedura, Nafarroako biztanleriari buruzko datu estatistikoak eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Espainiako Sistemari buruzko informazioa.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuko langileei, bereziki PANAKoei eta Idazkaritza Tekniko Nagusikoei.

II. MENDEKOTASUNARI BURUZKO LEGEAREN APLIKAZIOA ESTATUAN ETA NAFARROAN

II.1. MENDEKOTASUNA DUTENENTZAKO BABESAREN ALDERDI OROKORRAK ESTATUAN ETA NAFARROAN

“Mendekotasuna” da adin, gaixotasun edo ezintasunen bat dela eta, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera, baina autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensorialaren gabezia edo galerarekin zerikusia duena, eta horren ondorioz beste pertsona baten edo batzuen arreta behar baldin badute, edo laguntza handia eguneroko bizitzako oinarritzko ekintzak aurrera eraman ahal izateko. Honakoak hartzen dira eguneroko bizitzako oinarritzko jardueratzat:

- Nork bere burua zaintzearekin zerikusia dutenak (garbitzea, jatea, janzteia...).
- Etxeko lanak (garbiketa, erosketak, janaria prestatzea, dirua administratzea...).
- Etxean duen mugikortasuna.
- Etxetik kanpo duen mugikortasuna (kalera irtetea, paseatzea, garraioa erabiltzea...).

Mendekotasuna dutenentzako babes behin eta berriro arautu da, eta hartara arau-egitura zabala eratu da, hala nazioartean nola nazioan eta Foru Komunitatean.

Prozesu horren ondorioz, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea (aurrerantzean, Mendekotasunari buruzko Legea) onetsi zen. Lege horrek mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza emateko eta haien autonomia pertsonala sustatzeko oinarritzko baldintzak ezartzen ditu, Konstituzioan aipatzen diren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko espainiar guztiak berdinak izanen direla bermatzeko Estatuak duen eskumen osoaren babesean. Gainera, lege horrek Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Espainiako Sistema sortu du, ongizate-estatuaren atal horretan parte hartzen duten administrazio publiko guztiak batzen dituen sistema.

Aurreko arauen izaera asistentzialaren aurrean, legeak eskubide subjektibo bat eratzen du, unibertsaltasun, berdintasun eta eskuragarritasun printzipioetan oinarritua. Hainbat babes maila ezartzen ditu:

- Estatuko Administrazio Orokorrak ezarritako eta ziurtatutako gutxieneko babes maila.
- Bigarren maila, Estatuko Administrazio Orokorraren eta autonomia erkidego bakoitzeko administrazioen artean ezarritako babes maila.
- Autonomia erkidego bakoitzak aukeran izanen duen babes maila osagarria.

Pertsonen eskubide subjektiboak berekin dakar prestazioa berdintasunean eskuratzea, pertsona horren bizilekua zein ere den.

Legeak hiru mendekotasun gradu ezartzen ditu: mendekotasun arina, mendekotasun larria eta mendekotasun handia; eta gradu bakoitzean, bi maila. Sistemaren egitura ere arautzen du, eta prestazio ekonomikoak eta zerbitzuen katalogoa definitzen. Legean jasotako mendekotasunengatiko prestazioak jasotzeko eskubidea mailaz maila gauzatu da, gradualki, azken xedapenetatik lehenak ezarritako egutegiari jarraikiz:

Mendekotasun gradua	Ekitaldia
Mendekotasun handia.- 1. eta 2. mailak	2007
Mendekotasun larria.- 2. maila	2008
Mendekotasun larria.- 1. maila	2009 eta 2010
Mendekotasun arina.- 2. maila	2011 eta 2012
Mendekotasun arina.- 1. maila	2013 eta 2014

Arauk administrazio guztien arteko koordinazioa eta lankidetzak eskatzen ditu, organo berri baten bitartez lortu beharrekoak: Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren bitartez. Kontseiluak erabakiko du katalogoan egonen diren zerbitzuen zenbaterainokoa, diru-laguntzen zenbatekoa, zerbitzuen onuradunek zerbitzuen kostua zenbateraino ordaindu beharko duten, edo mendekotasuna aitortzeko baremazioa nolakoa izanen den. Finantzaketa egonkorra eta nahikoa izatea bilatzen da, eta administrazio publiko guztien erantzukizuna izateak bermatuko du hori.

Finantzaketari dagokionez, Mendekotasunari buruzko Legeak kapitulu oso bat eskaintzen dio horri; halatan, sistemaren finantziarioak eskumena duten administrazio publikoek dituzten betebeharrak aurre egiteko bestekoa izan beharko du, eta urtero, dagozkien aurrekontuetan jaso beharko da. Finantzaketaren arloan ondokoak bereizten dira:

Gutxienerako babes maila (Estatuaren kargura)

Maila honetako baliabide ekonomikoak urtero finkatuko dira Aurrekontuei buruzko Legean, eta autonomia erkidegoei haiek ordaintzeko modua ere bai. Estatuko katalogoan zehazturiko gizarte zerbitzuak estaltzen ditu. Mendekotasunari buruzko Legean jasotako prestazioetarako eskubidea mailaz maila erabiliko da, azken xedapenetako lehenengoan ezarri zen eta aurrean aipatutako araudiari jarraituz aldatu zen egutegiaren arabera.

Hitzartutako maila (Estatuak eta autonomia erkidegoek batera ordaintzea)

Ezarrita dago hitzarmenak eginen direla aurreko babesaren gutxienerako maila igotzeko, eta errege-dekretu bidez irizpideak onetsiko direla Estatuko katalogoan aurreikusita dauden zerbitzuetako bakoitzaren babesaren intentsitatea eta zerbitzuon bateragarritasuna zehazteko.

Hitzarmenak urte baterako edo urte anitzetarako eginen dira, eta banaketa irizpideak jasoko dituzte, kontuan izanik mendekotasuna duen biztanleria, sakabanatze geografikoa, intsularitatea, itzultitako emigratzaileak eta beste faktore batzuk. Alderdiak berrikusi ahal izanen dituzte.

Autonomia erkidegoaren urteroko ekarpena Estatuarena adinakoa izanen da, gutxienez. Nafarroako kasuan, legeak aurreikusten zuen Nafarroan Estatuari dagozkion zerbitzu eta prestazioen finantzaketa kontuan hartu behar zela Nafarroaren ekarpenaren kalkuluan, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat etorritik.

Horrenbestez, Nafarroak Estuari egin beharreko ekarpena murriztu egin behar da, Estatuko araudiak Foru Komunitateko onuradun bakoitzari bere mendekotasun mailaren arabera bermatzen eta ezartzen dion gutxienerako mailari dagokion zenbatekoa kenduz.

Autonomia erkidegoko maila (autonomia erkidegoaren kargura)

Autonomia erkidegoek zilegi dute Estatuak finkatutakoaz gainera babes maila gehiago definitzea beren aurrekontuen kargura.

Araudiak ezartzen du, halaber, onuradunaren ahalmen ekonomikoa (errentaren eta ondarearen arabera zehaztua) kontuan hartuko dela onuradunak zerbitzuen kostuaren zer zati ordainduko duen eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko.

Azpimarratu behar da Nafarroak, gizarte zerbitzuen alorrean duen eskumen osoa baliatuta, gizarte arloko babes-esparru bat onetsi zuela Mendekotasunari buruzko Legea onetsi aurretik ere. Esparru hori osatze aldera, Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea aldarrikatu zen, Mendekotasunari buruzko Legea onetsi zen egun berean. Nafarroa, hartara, ukitutako kolektiboen eskubideen gizarte-babeseko sistema berme-emale bat eratu zuen lehendabiziko erkidegoa izan zen, Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen zituen betebeharrak taxutzean.

Geroztik foru lege hori garatuz joan da, eta bereziki azpimarragarria da ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duena. Gizarte zerbitzuen sistema hori osatzearen, ondokoak ere onetsi dira Nafarroan:

- Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2008-2012), arlo horretan jarduteko ildo estrategikoa ezartzen dituena.
- Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitate Plana (2008-2013), helburu duena nafarrek kalitatezko laguntza jasotzeko duten eskubidea, bizilekua zein ere duten gutxienerako estandar batzuk ziurtatuko dituena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak gainditu egiten ditu Mendekotasunari buruzko Legearen aurreikuspenak, mendekotasuna duten pertsonak ez ezik gizarte zerbitzuen hartzaile guztiak babesten baititu (ezgaitasuna dutenak, adinekoak, baztertuak, etorkinak, haurrak, familiak, emakumeak...). Estatuko legeak, aitzitik, mendekotasuna aitortu zaien pertsonak soilik hartzen ditu kontuan.

Prestazio-multzo hori Gizarte Zerbitzuen Zorroan biltzen da. Indarrean dagoen zorroa 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, eta 140 prestazio jasotzen ditu, ondoko taulan laburbiltzen denez:

Arloak	Prestazioak			
	Bermatua		Koordainketa	
	Bai	Ez	Bai	Ez
Oinarrizko arreta	10	0	9	1
Mendekotasunaren arreta	25	0	21	4
Adinekoentzako arreta	5	17	17	5
Ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta	8	14	13	9
Buru-eritasuna duten pertsonentzako arreta	9	8	12	5
Gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonentzako arreta	11	6	1	16
Adingabeentzako arreta	16	5	0	21
Genero indarkeriaren biktimeentzako arreta	6	0	0	6
Guztira	90	50	76	64

Mendekotasunerako prestazioei dagokienez, komeni da gogoraraztea ezen, Mendekotasunari buruzko Legearen aurreikuspenekin bat, 2015a baino lehen osorik garatu behar direla legean jasotako prestazioak eta laguntzak; ordura arte, baliabideak arian-arian ezarriko dira, mendekotasun handienetik txikienerako ordenan.

Mendekotasunaren arloko arau horietan guztietan aldaketak egin dira. Txosten honen 5.1 atalean eta 2. eranskinean zehatz azaltzen dira aldaketa horien ondorioak.

II.2. MENDEKOTASUNA KUDEATZEKO ORGANOKAK NAFARROAN

Nafarroan mendekotasuna kudeatzea Gizarte Politiketako Departamentuaren eskumena da, eta, funtsean, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren (PANA) ardura.

Departamentu horretako Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiari atxikita daude PANA, idazkaritza nagusi tekniko bat eta bi erakunde autonomo: Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua.

PANA eta haren estatutuak irailaren 10eko 184/2007 Foru Dekretuaren bidez sortu ziren, eta horren azken aldaketa 74/2012 Foru Dekretuak egin du; honela azaltzen ditu aldaketaren arrazoiak: funtzionamenduari lotutako esperientzia, harrezkeroztik arauetan egindako aldaketak, eta, bereziki, egungo testuinguru ekonomikora egokitu beharra, austeritate ekonomikoa eta erantzukizuna oinarri izanda jokatu behar baitute administrazio publikoek, giza baliabideak eta baliabide materialak hobeki kudeatuz eta, ahal dela, erakundearen egitura sinplifikatuz.

PANAK bi lan-esparru nagusi ditu: batetik, mendekotasuna duten pertsonen erantzuna emateko prozesuak eta izapideak antolatzea, eta bestetik, pertsonen autonomia sustatzeko eta mendekotasunari aurrea hartzeko jarduketak egitea.

Haren egiturari dagokionez –ikus txosten honetako 1. eranskina–, badu gobernu kontseilu bat, zein sartzan baitira, Agentziako, Departamentuko eta Gizarte Gaiei atxikitako gainontzeko erakunde autonomoetako karguez gain, Osasuneko eta Aurrekontuetako eta Ondareko zuzendari nagusiak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluko bi kide; eta badu zuzendaritza-kudeatzaile bat ere. Gaur egun, gainera, baditu bi zuzendariordetza orokor, zortzi atal, lau bulego eta bost zentro bereki.

Departamentuari dagokionez, bere oinarrizko eginkizunak, txosten honen ondorioetarako, honela banatzen dira egituraren barnean:

- Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusia eginkizun hauetan aritzen da, Plangintza, Kalitate eta Ikuskeren Zerbitzuaren bitartez:

- a) Gizarte zerbitzuen plan estrategikoak, kalitate planak eta gizarte zerbitzuaren zorroa sortu eta horien jarraipena eta ebaluazioa egitea.

- b) Azterlanak eta ikerketak egitea gizarte zerbitzuen eskariari eta pertsona hartzaileen egoerari buruz.

- c) Kalitate- eta kostu-sistemak ezartzea departamentuaren funtzionamendurako eta haren helburuen lorpenerako, eraginkortasuna eta erabilzaileen gogobetetasuna bermatuz.

d) Gizarte zerbitzuak ikuskatzeko eta ikuskapen lana kontrolatu eta koordinatzeko planak egitea.

- Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikoak ohiko eskumenak ditu: arlo juridikoa, erregistroa, arlo tekniko-administratiboa, kontabilitatea eta aurrekontu-kudeaketa, eta langileria.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentuko eskaerari jarraituz, hauek dira txosten honen helburuak:

- Estatuko eta Foru Komunitateko araudian 2011-2012 bitartean izandako aldaketen berrikuspena egitea.
- Mendekotasunagatiko prestazioak baloratu, esleitu eta gauzatzeko aplikatzen den administrazio prozedura, Kontuen Ganberaren 2011ko martxoko txostenean jada aztertu zena, berrikustea.
- Mendekotasunaren Nafarroako aplikazioari buruzko estatistika- eta aurrekontu-informazio orokorra lortzea, 2010-2012 aldiari dagokiona.
- Kontuen Ganberaren 2011ko martxoko txostenean emandako aholkuen jarraipena egitea.

Lanaren norainokoari dagokionez, 2011n eta 2012an mendekotasuna aplikatzearekin zerikusia duten Foru Komunitateko eta Estatuko arauak aztertu dira, 2010ean gertatutako aldaketak lehenago aztertu baitziren, erakunde honen 2011ko martxoko txostenean. Mendekotasunerako prestazioak baloratu, esleitu eta gauzatzeko erabilitako prozedura ere berrikusi da. Aipaturiko prozedura egiaztatu da mendekotasunerako laguntzen izapidetze-espeditenteei buruzko laginketa ez-estatistiko batean. Azkenik, aztertutako aldiari dagokion aurrekontu- eta estatistika-informazioa lortu da, bai PANArena bai Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Espainiako Sistemarena.

Lana gauzatu da Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika edo balorazio-espeditenteen eta laguntza hauek emateko espeditenteen berrikuspen selektiboa.

Gure lanean eragin duten mugak ondokoetatik heldu dira, batez ere:

- Departamentuaren aurrekontu- eta organo-egiturak ez daude diseinatuta Mendekotasunari buruzko Legearen aplikaziotik eratorritako gastu eta diru-sarreraren aurrekontu-jarraipen berriazkoa egiteko, baizik eta gizarte-babeseko arlo guztien isla dira, oro har.
- PANAK kostu-sistematik ez duenez, ezin da zehaztu baliabideen kontsumoa prestazio mota bakoitzeko.
- Aztertutako aldiko oroitidazkirik ez izateak zaildu egin du PANari buruzko estatistika- eta aurrekontu-informazioaren gaineko datu sendoak lortzea.
- Zaila gertatzen da mendekotasunerako babes sistema publikoen multzoari buruzko datu eta kostu konparagarri eta koherenteak lortzea; batik bat, haien prestaketan irizpide ezberdinak erabiltzeagatik.

Muga horiekin guztiekin ere, lana jarduketa mota honetan ohikoa den metodologiarekin egina da eta, horrenbestez, lortutako datuek eta ondorioek arrazoizko bermea dute.

IV. ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Jarritako helburuak eta izandako mugak kontuan hartuta, hona egindako lanetik ateratzen diren ondorio orokorrak:

IV.1. 2011-2012 ALDIKO FORU KOMUNITATEKO ETA ESTATUKO ARAUDIAREN BERRIKUSPENA

Bai foru araudiari bai Estatukoari aldaketa garrantzitsuak egin zaizkie, txosten honen 2. eranskinean zehatz azaltzen direnak, krisi ekonomikoak ekarri duen egoerari aurre egiteko ahaleginean. Hauek izan dira krisiaren ondorio nagusiak:

- Mendekotasunerako prestazio ekonomikoen banakako zenbatekoaren murrizketa orokorra.
- Prestazio horietarako eskubidea gauzatzeko epeak luzatzea.
- Zenbait prestazioren arteko bateraezintasuna.
- Graduen barruan zeuden mendekotasun mailak kentzea. Oraingo kategoría bakarrak mendekotasun handia, mendekotasun larria eta mendekotasun arina dira, mailarik gabe. Azken horren ondorioz, 2. mailako mendekotasun arinaren kalifikazioa lehendik zutenek eutsi egin diote prestazioari, baina kategoría hori jaso berri dutenek ez dute prestaziorako eskubiderik.

IV.2. MENDEKOTASUN PRESTAZIOAK BALORATU, ESLEITU ETA GAUZATZEKO PROZEDURA

Nafarroan mendekotasunerako laguntzak eta zerbitzuak aitortzeko prozedura ez da aldatu, oro har, Kontuen Ganberaren 2011ko martxoko txostenean deskribatutakoaren aldean. Aldaketa nagusia 1/2011 Foru Legean araututakoa izan da. Txosten honen 3. eranskinean jaso dira prozeduraren xehetasunak, erakunde honek aurreko txostena eman zuenetik egin diren aldaketa txikiekin batera.

Azpimarratu behar da, erakunde honek aurretik emandako txostenean agerian jarri zen bezala, mendekotasunerako prestazioa eskatzen den egunetik sei hilabeteko epea dagoela prozedura ebazteko (lehenago hamaika hilabeteko epea zegoen), berdin dio administrazio eskudunak berariazko prozedura ezarri duen ala ez mendekotasun egoeraren eta prestazioen aitorpenerako. Kontuan izan behar da, halaber, izapidetzeko epe horrek markatzen duela prestazioetarako eskubidearen data; kendu egin da prestazio ekonomikoen atzeraeragina, balorazio-eskaera aurkezten zen egunean hasten zena.

IV.3. MENDEKOTASUNA NAFARROAN APLIKATZEARI BURUZKO ESTATISTIKA- ETA AURREKONTU-DATUAK

• Mendekotasuna baloratzeko 33.980 eskaera aurkeztu dira 2008ko urtarriletik 2012ko abendura arte. Denbora bitarte berean 38.068 ebazpen eman dira mendekotasunaren balorazioarekin eta 2.330 artxibatu egin dira, edo ezetsi, edo errekurtsioa jarri zaie eta errekurtsioa baietsi egin da.

Gogoan izan behar dugu ebazpenen kopurua eskaeren kopurua baino handiagoa dela PANAK ofizioz ematen dituelako ebazpenetako asko.

• Mendekotasunaren balorazioa dakarten ebazpenetatik ehuneko 14k mendekotasunik ezaren kalifikazioa ezartzen dute, ehuneko 34k mendekotasun arina, ehuneko 29k mendekotasun larria, eta gainerakoek, ehuneko 23k, mendekotasun handia.

- 2013ko apirilean 984 espediente zeuden balorazioaren zain.

Hona datuak, laburbilduta:

		Ebazpenen kopurua
Ebatziak		40.398
Artxibatuak		2.280
Ezetsiak		27
Errekurtsioa baietsita		23
Baloratuak		38.068
	Mendekotasunik ez	5.492
	Mendekotasun arina	12.985
	Mendekotasun larria	10.944
	Mendekotasun handia	8.647

- 2012ko abenduaren 31n, mendekotasunaren aplikazioaren ondorioz 8.862 pertsonak jasotzen zizuten prestazio bermatuak, baina prestazio edo zerbitzuak guztira 10.401 ziren, pertsona batzuek zilegi dutelako hainbat prestazio eta/edo zerbitzu batera jasotzea.
- 2012ko abenduan, mendekotasunaren balorazioa bazuten 868 pertsona zeuden zain, banakako arreta planean (BAP) zehazturiko zerbitzua edo laguntza ekonomikoa noiz jasoko.
- Mendekotasunerako prestazioa eta/edo zerbitzua onartzeko ebazpena batez beste epe hauetan eman da 2010-2012 bitarteko urteetan:

Batez besteko epea (hilabeteak)			Aldaketaren portzentajea	
2010eko uztailetik abendura	2011	2012	2012/2011	2012/2010
14,15	10,9	9,88	-9	-30

Ikus daitekeenez, oro har, ez da betetzen ari araudiak eskatzen duen sei hilabeteko epea; baina emaitza horiek aztertzerakoan kontuan hartu behar dira zenbait inguruabar, hala nola 2010eko arau-aldaketa, langile gutxiagorekin denbora laburragoan espediente gehiago ebaztera behartu zuena, edo prestazioen araberako epe desberdinak, besteak beste. Horrez gain, ebazpena emateko batez besteko epea laburtu egin dela ikusten da aztertutako aldian.

- Badira bermatutako 26 prestazio, eta horietatik hiru ez dira berez zerbitzu-prestazioak, onuradunarentzako zuzeneko laguntza ekonomikoa baizik. Gainerako 23etatik bi modu publikoan kudeatzen dira, bederatzi modu pribatuan kudeatzen dira, edo Nafarroako Gobernuarenak izanik kanpo-kudeaketa duten zentroen bitartez; beste 10 modu publiko nahiz pribatuan kudeatzen dira, eta gainerako biak modu pribatuan bakarrik.

Aزتتutako aldian ez da prestazio bakar bat ere indargabetu; hala ere azpimarratu behar lirateke inguruabar hauek:

a) Estatuko eta Foru Komunitateko mendekotasun arloko arauen aldaketak, gorago azaldutako ondorioak ekarri dituztenak.

b) Mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzeko gutxieneko laguntza ekonomikoa iraungi beharreko prestazio ekonomikoa dira.

- Gizarte Politiketako Departamentuaren eta PANAREN egitura eta aurrekontu-programak, haien egitura organikoaren aldaketak, Estatuan ez izatea kostu-sistema homogeneorik mendekotasunerako zerbitzuen kostua kalkulatzeko, eta zeharkako kostuen eta gastu orokorren sistemen banaketarik eza; arrazoi horiek guztiak tarteko, ezin da behar bezala zehaztu mendekotasunerako babesaren arloan Nafarroan egiten den gastu osoa. Hala ere, arlo horretako araudia 2011n eta 2012an Foru Komunitatean aplikatzearekin zuzeneko zerikusia izan duen gastuaren zenbatespena egin da eta hauxe da emaitza:

Mendekotasunerako babesaren arloko gastua 2011n (euroak)		Mendekotasunerako babesaren arloko gastua 2012an (euroak)	
Inbertsioak eta kapital-transferentziak barne	Inbertsioak eta kapital-transferentziak sartu gabe	Inbertsioak eta kapital-transferentziak barne	Inbertsioak eta kapital-transferentziak sartu gabe
153.006.871	150.922.605	138.741.505	135.874.183

Ikus daitekeenez, Nafarroan mendekotasunerako babesaren arloko gutxieneko gastu zenbatetsia ehuneko bederatzi inguru murriztu da 2012an, inbertsio eta kapital-transferentzietan egindako gastua sartuta zein kanpo utzita.

- Gastu hori eta haren kalkuluaren mugak kontuan harturik, hartan parte hartzen duten eragileetako (Nafarroako Gobernu, Estatu eta erabiltzaileak) bakoitzaren finantzaketa-portzentajearen hur-bilketa egin da. Hona emaitza:

	2011		2012	
	Zenbatekoa (euroak)	Eragile bakoitzaren finantzaketa-portzentajea	Zenbatekoa (euroak)	Eragile bakoitzaren finantzaketa-portzentajea
Nafarroako Gobernuaren gastua	107.699.700	70	95.669.268	69
Prestazioen erabiltzaileen kuotak	32.226.048	21	30.503.209	22
Estatuaren ekarpena	13.081.123	9	12.569.028	9
Guztira	153.006.871	100	138.501.706	100

Taulan ageri denez, Nafarroako Gobernua da finantzatzaile nagusia eta gutxienez ere guztizko zenbatekoaren ehuneko 70 inguru jartzen du. Erabiltzaileek ehuneko 21 jartzen dute, eta Estatuak, azkenik, gainerako ehuneko bederatzia jartzen du. Portzentaje horiek parekoak dira bi ekitaldietan, are berdinak, gastu zenbatetsian oinarrituta kalkulatu badira, inbertsioak eta kapital-transferentziak kontuan hartu gabe.

Ematen diren zerbitzuen benetako kostuetatik Estatuak ezarritako finantzaketa-moduluetara alde handia dago, eta, egungo krisiaren ondorioz, Estatuak hitzartutako maila finantzatzeko bere aurrekontuetan dituen kontusailak urriak dira. Horregatik sortzen dira eragileen arteko alde adierazgarri horiek, bakoitzaren finantzaketaren pisuari dagokionez.

IV.4. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Erakunde honek bost aholku eman zituen Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioaz egin-dako aurreko txostenean, eta esan daiteke bete egin dela PANAREN egitura organikoa egokitzeko aholkua eta aurrera egin dela mendekotasunaren arloko araudiaren aplikazioarekin zerikusia duten kudeaketa-prozedurak hobetzeko prozesuan.

Indarrean jarraitzen dute beste hiru aholku hauek: kostu-sistema bat ezartzea, dauden datu-baseen ustiapen informatikoari lotuta, eta aplikazio integral bat sortzea, soil-soilik agertuko lituzkeena mendekotasunarekin loturiko gastuak eta diru-sarrerak.

Ateratako ondorioak aintzat harturik, Kontuen Ganbera honek aholkatzen du:

- *Kontabilitate analitikoaren sistema egoki bat ezartzea, zerbitzuaren intentsitatea irizpide gisa harturik zentroetako mendekotasundun bakoitzeko kostu-zenbatekoari eutsi ahal izateko eta kostu hori konparatu ahal izateko modukoa.*

- *Aurreko horrek eta dauden datu-baseen ustiapen informatikoak modua eman behar dute eza-gutu ahal izateko mendekotasuna duen pertsona bakoitzak sorrarazten duen gastua eta haren diru-sarrerak, dela kuota edo kenkariengatik, dela Estatuko finantzaketarengatik.*

- *Aurreko guztia kontabilitateko edo kontabilitatez kanpoko sistema batean integratzea; sistema horrek soil-soilik agertuko lituzke mendekotasunarekin loturiko gastuak eta diru-sarrerak, eta saldoak adieraziko luke Mendekotasunari buruzko Legeak Foru Ogasunari dakarkion emaitza.*

- *PANAREN oroitidazkian informazio gehiago ematea, lagungarria izan dadin erabakiak hartzean eta mendekotasunaren arretaren plangintza estrategikoan.*

V. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA XEHAKATUA

Aurreko atalean azaldutako ondorioak lortzeko bidea eman duen lanaren azterketa xehakatu aurkeztuko da ondoren.

V.1. ESTATUKO ETA FORU KOMUNITATEKO ARAUDIAN 2011-2012 BITARTEAN IZANDAKO ALDAKETEN BERRIKUSPENA

Mendekotasunari buruzko Legea erregelamenduz garatu da, hainbat errege-dekretu direla medio; horietan arautzen dira, beste gai batzuen artean, zerbitzuen babesaren intentsitateak, prestazioen zenbatekoak eta sistemako gutxieneko babes mailak.

Nafarroako Foru Komunitateak, gizarte laguntzaren arloan duen eskumen eksklusiboa baliatuz, arlo horri zuzenean eragiten dioten arau asko eman ditu. Horien artean nabarmentzen dira Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea eta Gizarte Zerbitzuen Zorroa onesten duen 69/2008 Foru Dekretua.

Estatuaren eta autonomia erkidegoaren arau horien aplikazioa eta garapena direla bide, mendekotasunaren arretarako sistema publikoa eratuz joan da Foru Komunitatean, eta badu halako substantibitate propio bat, bereziki sistemako babes maila hitzartuari eta gehigarriari dagokienez.

Horrela taxututako sisteman eragina izan duten hainbat arau eman dira bai Foru Komunitatean bai Estatuan. Horien xehetasunak ikus daitezke txosten honen 2. eranskinean.

Hona hemen, jarraian, aztertutako aldian zehar mendekotasunari buruzko araudian egin diren aldaketetatik gure ustez garrantzi handiena izan dutenak:

- 1/2011 Foru Legea, otsailaren 15ekoa, mendekotasun egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena.
- 1/2011 Foru Lege-dekretua, urriaren 6koa, defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituena.
- 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 20/2011 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.
- 2/2012 Legea, ekainaren 29koa, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.
- 732/2012 Foru Agindua, abenduaren 24koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, zerbitzuari lotutako prestazioen zenbatekoa ezartzen duena.

Arau horien eta 2. eranskinean jasotako eraginari buruz atera litekeen ondorioa da honelako neurriekin ari direla saiatzeko krisi ekonomikoari erantzuten:

- Mendekotasunerako prestazio ekonomikoen banakako zenbatekoaren murrizketa orokorra.
- Prestazio horietarako eskubidea gauzatzeko epeak luzatzea.
- Zenbait prestazioren arteko bateraezintasuna.
- Graduen barruan zeuden mendekotasun mailak kentzea. Hala, oraingo kategoria bakarrak mendekotasun handia, mendekotasun larria eta mendekotasun arina dira, mailarik gabe. Ondorioz, 2. mailako mendekotasun arinaren kalifikazioa zutenak mendekotasun arinaren graduan sailkatu dituzte. Lehen zenbait prestazio jasotzen zituzten, baina orain ez dute inolako prestaziotarako eskubiderik.

Izan ere, 20/2012 Errege Lege-dekretuaren zioen azalpenak dioenez:

“Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren iraunkortasun ekonomikoak, Espainiako ekonomia jasaten ari den egoera ekonomikoak eta defizit publikoaren arloko helburuak betetzeko eskakizunak hartarata, Gobernuak presako neurri ekonomikoak hartu behar ditu, administrazio publikoaren gastuan berehalako aurrezpena ekarri behar dutenak. Ildo horri jarraituz errege lege-dekretu honetan jaso diren neurriek aurrezpena eraginen dute, alde batetik, autonomia erkidegoen gastuan, pertsonak etxean zaintzeko prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoen murrizketaren bidez, eta bestetik Estatuko Administrazio Orokorren gastuan, Autono-

miarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako gutxieneko finantzaketa mailaren zenbatekoen murrizketaren bidez.

Neurri ekonomiko horien helburua da Sistemaren oreka berri iraunkorra lortzea, autonomia pertsonalaren sustapenerako eta mendekotasunaren arretarako eskubidea bermaturik dagoela”.

Beraz, sistemaren iraunkortasuna helburu, arrazoi ekonomikoek eragin dute Mendekotasunari buruzko Legearen erreforma, errege lege-dekretu horren bidez sustatutakoa, eta beste horrenbeste esan daiteke lehenago onetsitako Estatuko arauz (20/2011 Errege Lege-dekretua eta 2/2012 Legea) eta Nafarroan onetsitako arauz (1/2011 Foru Lege-dekretua eta 19/2011 Foru Legea).

V.2. MENDEKOTASUNAGATIKO PRESTAZIOAK BALORATU, ESLEITU ETA GAUZATZEKO ERABILTZEN DEN ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN BERRIKUSPENA

Nafarroan mendekotasunerako laguntzak eta zerbitzuak aitortzeko prozedura ez da aldatu, oro har, Kontuen Ganberaren 2011ko martxoko txostenean deskribatutakoaren aldean. Aldaketa nagusia da prozeduraren xehetasunak bildu izana 1/2011 Foru Legean. Txosten honen 3. eranskinean jaso dira xehetasunok, erakunde honek aurreko txostena eman zuenetik egin diren aldaketa txikiekin batera.

Haien analisisian oinarrituz, honako fase nagusi hauek aipatu behar ditugu:

- a) Prozeduraren hasiera.
- b) Mendekotasun egoeraren balorazioa.
- c) Banakako Arreta Programa (BAP) egitea, edo mendekotasuna duen pertsonak bere egoera pertsonalaren eta aitortu zaion mendekotasun maila eta graduaren arabera eskura litzakeen prestazioen eta/edo zerbitzuen katalogoa.
- d) Ebazpena eta prestazioen eraginkortasuna.
- e) Prestazioetarako eskubidea berrikustea eta, bidezkoa bada, azkentzea.

Defizit publikoa murrizteko ohiz kanpoko neurriak ezartzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege-dekretuak indarra hartzean ondorio hauek sortu ziren:

- 1) Eskaera-egunaren eta mendekotasun prestazioa aitortzeko ebazpenaren arteko gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da, baita administrazio eskudunak mendekotasun egoera eta prestazioak aitortzeko prozedura bereizia ezarri duenean ere.
- 2) Kasuko prestazioak eskuratzeko eskubidea sortzen da eskubide hori aitortzen den egunetik aurrera. Baldin eta, sei hilabeteko gehieneko epea iraganda, ebazpen horren jakinarazpenik egiten ez balitz, prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubidea sortuko da epe hori betetzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Legedi berriarekin, beraz, izapidetzeko epe horrek markatzen du prestazioetarako eskubidearen data; kendu egin da prestazio ekonomikoen atzeraeragina, balorazio-eskaera aurkezten zen egunean hasten zena.

- 3) Administrazioak zilegi du prozedura amaitu bitartean sorturiko prestazio ekonomikoaren ordainketa zatikatzea, zenbateko berdinetan, bost urteko gehieneko epean. Nafarroan kendu egin da aukera hori.
- Prozedura horren aplikazioa aztertzeko, 2012ko espedienteen lagin ez-estatistiko bat aukeratu da, aitortutako gradu eta mailek guztizko kopuruan duten pisuari erreparatuta.

Egindako lanaren emaitza gisa esan dezakegu, oro har, berrikusi diren espedienteek badituztela araudian bildutako prozedurak adierazten dituen informazioa eta dokumentazioa, kontuan izanik izugarrizko kasu aniztasuna aurkitu dela aztertutako espedienteetan.

• Prozedura hori eta kasuan kasuko prestazioak aplikatzeko zuzenean edo zeharka erabiltzen diren giza baliabideak*, Departamentuak eta PANAk 2011rako onetsi eta 2012ko maiatzean argitaratutako azken plantilla organikoaren arabera, 567 lanpostu dira, taula honetan ageri den bezala banatuak:

Mendekotasunaren arloko langileak	Kopurua
Departamentua	104
PANA	94
Laguntza-zentroak	369
Guztira	567

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

a) Lanpostu horietatik guztietatik, ehuneko 71 beteta daude, eta ehuneko 29, hutsik. Lanpostu huts horietatik ehuneko 88 aldi baterako daude beteta.

b) Bete gabeko lanpostuen kopuru handiena laguntza-zentroetan ikusten da, haien lanpostu guztien ehuneko 33koa baita; Departamentuan eta PANAn, portzentajeak ehuneko 18 eta 28 dira, hurrenez hurren.

c) Departamentuan, postu teknikoek (A eta B mailak) ehuneko 50 egiten dute; Agentzian, portzentaje hori ehuneko 64koa da, eta laguntza-zentroetan ehuneko 14koa.

• Balorazio-lantalde teknikoa: deskribatutako prozeduraren barnean duen garrantziagatik, haren osaeraren azterketa zehatza egin da. Nafarroan 6/2009 Foru Dekretuak arautzen du lantalde hori, Estatuko araudian gaiari buruz ezarritakoa sakonduz. Osasun eta gizarte arloetako langileek osatuko dute lantalde hori. Eginkizun nagusi hauek izanen dituzte:

a) Estatuko legedian ezarritako baremoak eta eskalak aplikatzea.

b) Txostena egitea ohiko inguruneari eta irisgarritasunari buruz, horrela elementuak eskuratzeko, mendekotasunaren gradu eta mailari buruzko irizpen teknikoa egoki egiteko beharrezkoak direnak.

c) Mendekotasunaren gradu eta mailari buruzko irizpen teknikoa egitea, Estatuko legediak mendekotasun egoera baloratzeari dagokionez ezarritako baremoari jarraituz.

Balorazio Atala PANako Mendekotasunerako Baliabideen eta Kudeaketaren Zuzendariordearen baitan dago, eta honela osatuta zegoen 2011ko abenduaren 31ko plantilla organikoaren arabera:

* Departamentuari dagokionez, ez dira kontuan hartu Nafarroako Gazteriaren Institutuari, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuari eta Nafarroako Kirolaren erakunde autonomoari atxikitako langileak. Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, ez dira kontuan hartu Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuko langileak, Haur eta Nerabeentzako Babes, Sustapen eta Arretaren Zerbitzukoak eta Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzukoak.

Lanpostua	Kopurua 2011n	Kopurua 2010ean
Atalburua	1	1
Mediku orokorra	2	2
Psikologoa	3	3
Terapeuta okupazionala	7	7
Mandataria	1	1
Gizarte langilea	2	2
Gizarte laguntzailea	1	1
Begirale okupazionala	1	1
OLT/EDU	1	1
Administrari laguntzailea	6	4
Administraria	1	—
Guztira	26	23

Terapeuten lanpostuak dira ugariak, ehuneko 27, eta ondoren administrari laguntzaileenak, ehuneko 23.

Lanpostu guztien ehuneko 69 beren titularrek beteak daude; gainerako lanpostuak, ehuneko 31, hutsik daude. Horietatik ehuneko 75 aldi baterako beteta daude.

2010eko kopuruaren aldean 2011n lanpostuak ehuneko 13 gehiago dira, eta administrariaren lanpostua gehitu da berritasun gisa.

V.3. MENDEKOTASUNA NAFARROAN APLIKATZEARI BURUZKO ESTADISTIKA- ETA AURRE-KONTU-DATUAK

a) Mendekotasunaren baloraziorako aurkezturiko eskaerak (2008-2012).

PANAK eskainitako datuen arabera, 2012ko abenduaren 31ra bitartean honakoak izan dira mendekotasunaren baloraziorako aurkezturiko eskaerak:

Urtea	Hasierako balorazioa	Berrikuspenak		Guztira	Ehunekoa, guztizkoaren gainean
		Erabiltzaileak eskatuta	Ofizioz		
2008	6.982	1.788	82	8.852	26
2009	4.575	2.574	398	7.547	22
2010	3.648	2.278	603	6.529	19
2011	3.258	2.295	515	6.068	18
2012	2.610	1.873	501	4.984	15
Guztira	21.073	10.808	2.099	33.980	100

Hasierako balorazioetarako eskaerak pixkanaka gutxitzen doaz, denboran zehar mendekotasunari buruzko araudia aplikatzen den heinean.

Berrikuspenei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Gero eta gehiago dira 2011ra arte, eta pixka bat gutxitzen dira 2012an (batik bat araudi-aldaketaren ondorioz, mailak kendutakoan eskaeren kopuruak nabarmen egin baitu behera).
- Berrikuspenen ehuneko 84 egiten dira interesdunak eskatuta; gainerakoak, ofizioz.
- Berrikuspenen ehuneko 83k lehengo balorazioa aldatzen dute; horietatik, ehuneko 90ek igo egiten dute aurretiaz aitortutako gradua eta/edo maila, eta gainerako ehuneko 10ek, berriz, beheratu egiten dute aitortutako gradua. Berrikuspenen ehuneko 17k ez dute aurretiazko balorazioa aldatzen.

- Graduaren edo mailaren beheratzea ekartzen duten berrikuspenetatik, ehuneko 48 dagozkie mendekotasun larria daukatenei; ehuneko 33, arina daukatenei, eta ehuneko 19, mendekotasun handia daukatenei.

- Mendekotasun graduaren eta mailaren gorakada erakartzen duten berrikuspenetatik, ehuneko 52 dagozkie mendekotasun arinekoei; ehuneko 28, mendekotasun larrikoei; ehuneko 18, hasiera batean mendekotasunik gabeko deklaratuak izan ondoren, berrikuspenera dela medio mendekotasun gradu eta mailaren bat aitortzen zaienei; eta azkenik, ehuneko bi, mendekotasun handia izanik berrikuspenera egin ondoren maila igotzen zaienei.

b) Ebatzita edo ebatzeko prozesuan dauden eskaerak (2008-2012)

PANAn lortutako informazioaren arabera, hauek dira datuak:

Urtea	Mendekotasunik ez	Arina*	Ebaluatutakoak, guztira							Bestelako ebazpenak			
			Arina 1. maila	Arina 2. maila	Larria*	Larria 1. maila	Larria 2. maila	Handia*	Handia 1. maila	Handia 2. maila	Artxi-ba-tzea	Uka-tzea	Errekur-tsoa bai-esta
2008	1.382		2.355	1.810		2.583	1.537		1.822	2.223	21		
2009	1.396		1.572	1.124		1.364	904		871	805	797		
2010	1.328		1.552	1.037		1.189	683		707	472	566	5	5
2011	819		1.217	975		941	553		522	319	426	13	17
2012	567	733	309	301	630	313	247	483	222	201	470	9	1
Guztira	5.492	733	7.005	5.247	630	6.390	3.924	483	4.144	4.020	2.280	27	23

* 20/2012 Errege Lege-dekretuak indarra hartzean desagertu egin dira mendekotasun gradu bakoitzaren barruko mailak, eta ordutik aurrera graduak dira kategoria bakarrak.

Urteka, informazio hau lortzen da:

Urtea	Ebazpenak, guztira		
	Mendekotasun egoeraren balorazioa dakarten ebazpenak	Bestelako ebazpenak	Guztira
2008	13.712	21	13.733
2009	8.036	797	8.833
2010	6.968	576	7.544
2011	5.346	456	5.802
2012	4.006	480	4.486
Guztira	38.068	2.330	40.398

Arestiko taula horiek kontuan hartuz, ondoko datuak azpimarratu nahi ditugu:

- Aztertutako aldian, baloraziorako aurkeztutako eskaeren eta PANAK ofizioz egindako berrikuspenen ehuneko 94,2ri balorazio-ebazpena egokitu zaie, ehuneko 5,6 artxibatu egin dira, eta gainerakoei (ehuneko 0,2 besterik ez) ebazpenak edo ezezkoa eman die edo jarritako errekurtsioa baietsi die.

- Hauek dira artxibatutako arrazoi nagusiak 2012an: heriotza (ehuneko 87), uko egitea (ehuneko zortzi), eta atzera egin delako deklarazioa, eskatutako agiriren bat ez aurkezteagatik (ehuneko hiru).

- 2008-2012 bitartean ebatzitako eskaeren ehuneko 14k mendekotasunik ezaren kalifikazioa jaso dute, ehuneko 34k mendekotasun arinarena, ehuneko 29k mendekotasun larriarena eta ehuneko 23k mendekotasun handiarena.

- Gure lana itxi den garaian, 2013ko apirilean, guztira 984 espediente daude balorazioaren zain.

c) Zerbitzu-ematerako eta/edo prestazio ekonomikorako eskubidedun ebazpenak (2008-2012).

Aztertutako aldian, guztira 32.576 ebazpen ditugu mendekotasunaren balorazioa dutenak. Ebazpenak askoz gehiago dira baloratutako pertsonak baino, pertsona bat hainbat aldiz balora daitekeelako. Hurrengo taulan ebazpenei buruzko datuak ageri dira:

	Mendekotasuna dutenen ebazpenak	Sisteman sartutakoak (aurreko urteetakoak)	Zerbitzu-ematerako eta/edo prestazio ekonomikorako eskubidedunak
2008	12.330 ⁽¹⁾	-	5.582
2009	6.640	2.798	3.944
2010	5.640	-	3.051
2011	4.527	1.866	3.310
2012	3.439	-	2.397 ⁽³⁾
Guztira	32.576	4.664⁽²⁾	18.284

(1) Ebazpenen kopurua oso handia da 2008an, ohiko eskaerez gainera ofiziozko ebazpena eman zitzaielako egoitza-zentroetan, eguneko zentroetan eta abarrekoetan zeuden pertsona guztiei.

(2) Kontuan hartu behar da sisteman sartuta daudela 1. mailako mendekotasun larria dutenak 2009an eta 2. mailako mendekotasun arina dutenak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, baita aurreko urteetan baloratutakoak ere.

(3) Estatuan baztertu egin dira 2. mailako mendekotasun arinekoak, 20/2012 Errege Lege-dekretuak indarra hartzean. Nafarroan segitu da arreta ematen, Foru Komunitateak osorik finantzatuta, arau horrek indarra hartu baino lehen aitortutako 2. mailako mendekotasun arina dutenei.

Mendekotasunaren deklarazio edo balorazioa jasotzen duten guztiek ez dute, ordea, Mendekotasunari buruzko Legeak bermatutako zerbitzu edo prestaziorako eskubidea: baztertu egiten dira mendekotasun arinekoak, gradua aldatzen zaienak eta beste autonomia erkidego batzuetara lekualdatzen direnak. Bestalde, badira pertsonak, Foru Zerbitzu Zorroaren aplikazioarengatik zerbitzuak hartzen dituztenak, eta ez Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioarengatik.

d) Arreta jasotzen duten eta prestaziorako eskubidea duten mendekotasundunen egoera honela xehakatzen da 2012ko abenduaren 31n:

Zerbitzuak/prestazio ekonomikoa	Prestaziorako eskubidedunak	Ehunekoa, bermatutako prestazioen guztizko kopuruaren gainean
Egoitza zerbitzua	1.977	19
Eguneko arreta zerbitzua	258	2,5
Eguneko zentroko zerbitzua + etxean zaintzeko laguntza ekonomikoa	14	0,1
Egoitza zerbitzua edo eguneko zentroa zerbitzuari lotutako prestazioarekin	684	6,6
Larrialdietarako telefono zerbitzua	126	1,2
Mendekotasundunek etxean bizitzen jarraitzeko prestazio ekonomikoa	5.711	54,9
Etxeko laguntza zerbitzua + beste baliabide bat	528	5,1
Larrialdietarako telefono zerbitzua + beste baliabide bat	1.011	9,7
Gutxienekoak	92	0,9
Zerbitzuak/prestazioak, guztira	10.401	100
Prestazioa duten pertsonak, guztira	8.862*	

* Ohartarazi beharra dago pertsonen kopurua zerbitzu eta/edo prestazioen kopurua baino txikiagoa dela, horietako batzuk beste batzuekin bateragarriak izan daitezkeelako.

Taula horretatik datu hauek dira aipagarriak:

- Mendekotasuna duten 8.862 pertsonak, guztira, jasotzen dute zerbitzua eta/edo laguntza ekonomikoa. Baina 9.730 pertsonak dute horretarako eskubidea; beraz, 868 pertsonaren espedienteak izapidetzen ari dira.

- Zerbitzuei dagokienez, 5.711 pertsonak (ehuneko 55) jasotzen dute arreta mendekotasuna duten pertsonak etxean bizitzen jarraitzeko prestazio ekonomikoaren zerbitzuaren bitartez. Azpimarratu behar da etxez etxeko laguntza udalek kudeaturiko zerbitzu bat dela, baina departamentuak finantzatzen eta estatistikoki aintzat hartzen du BAPean 2009ko otsailetik txertatua izan zelako.

- Egoitza zerbitzuan 1.977 pertsona zeuden (guztizkoaren ehuneko 19), eta eguneko zentroan, 258 pertsona (ehuneko 2,5), eta 14 pertsonak etxez etxeko laguntza ere jasotzen dute. Guztira, 684 pertsonak (ehuneko zazpi) jasotzen zuten egoitzako arreta edo eguneko zentroa zerbitzuari lotutako prestazioarekin (ZLP) batera.

- Larrialdietarako telefono zerbitzua guztira 1.137 pertsonari ematen zaie (guztizkoaren ehuneko 11), eta horietatik, 1.011 pertsonak beste baliabide batzuekin batera jasotzen dute.

e) Mendekotasunaren balorazioa eskuratuta ere, dagokien zerbitzu edo prestazioa oraindik jasotzen ez duten pertsonak.

Arestian aipatu bezala, 2012ko azaroaren 31n Nafarroan 868 pertsonak badute mendekotasunaren balorazioa, baina oraindik ez dute jasotzen beren BAPetan zehaztutako zerbitzua eta/edo laguntza ekonomikoa. Ondoko taulan horien xehakapena jaso da:

	Izapidetan
Mendekotasun handikoak	114
Mendekotasun handikoak, 2. maila	20
Mendekotasun handikoak, 1. maila	21
Mendekotasun larrikoak	214
Mendekotasun larrikoak, 2. maila	39
Mendekotasun larrikoak, 1. maila	86
Mendekotasun arinekoak, 2. maila	374
Prestaziorako eskubidea duten onuradunen guztizko kopurua	868

f) Prestazioak ebazteko batez besteko epea (2010-2012)

Adierazle hau aztertzerakoan aintzat hartu behar dira zenbait inguruabar:

- Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioak berekin dakar izapide oso ezberdinak eta konplexutasun ezberdinekoak dituzten prestazio eta zerbitzuen multzo bat; horrenbestez, oso korapilatsua gertatzen da horien guztien batez besteko balio adierazgarri bat lortzea.

- Azterketa 2010eko uztailetik aurrera egin da, ordura arte 11 hilabeteko epea zegoelako prestazioak emateko. 1/2011 Foru Legea argitaratu ondoren epea laburragoa zen: 6 hilabete, hasierako eskaeraren egunetik aurrera. Ondorioz, langile kopuru berarekin espediente gehiago ebatzi behar ziren, ia erdira laburtutako epean. Gainera, 2010aren erdialdera arte ez zen kanporatu ahalmen ekonomikoaren balorazioak egiteko lana. Lehenago Departamentuko langileek egiten zuten, espediente kopuru handiak itota.

- 2011n mendekotasun sisteman sartu ziren 2. mailako mendekotasun arinekotzat baloratutako pertsonak. Etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ekonomikoa soilik aitortu zitzairen. Eskaera gehienak urte hasieran aurkeztu ziren, baina araudia ez zen 2011ko abenduaren erdialdera arte argitaratu. Beraz, pertsona horiei behar baino gehiago luzatu zitzaizkien ebazpen-epeak; hain zuzen ere laguntza ekonomiko gehienak 2012an ebatzi ziren.

Gainera, 2011ko irailetik aurrera ZLPen espediente batzuk ebatzi ziren, lehenago ezin ebatzi izan zirenak aurrekontuko baliabide faltagatik.

- 2012an, goian azaldutakoari gehituta, laguntza ekonomikorako 2007ko eta 2008ko 1.500 bat espediente berrikusi ziren, eta horrek areagotu egin zuen prestazio ekonomikoen ataleko langileen lan-zama.

Aurreko guztia kontuan izanik, eta PANak emandako informazioaren arabera, prestazioak emateari edo artxibatzeari buruz ebazteko batez besteko epeak izan duen eboluzioa erakusten da beheko taulan:

Prestazioa/zerbitzua	Batez besteko epea (hilabeteak)			Aldaketaren ehunekoak	
	2010eko uztaitetik abendura	2011	2012	2012/2011	2012/2010
Etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ekonomikoa	14,95	10,20	10,43	2	-30
Ezgaitasuna dutenentzako egoitza-arreta	9,80	19,66	8,82	-55	-10
Adinekoentzako egoitza-arreta	12,52	12,04	7,99	-34	-36
Buru-gaixoentzako egoitza-arreta	—	16,19	16,12	-0,4	—
Ezgaitasuna dutenentzako eguneko arreta	8,68	10,73	6,92	-36	-20
Adinekoentzako eguneko arreta	12,14	13,09	9,83	-25	-19
Errehabilitazio psikosozialeko zentroa (EPSZ)	—	5,00	—	—	—
Guztira	14,15	10,9	9,88	-9	-30

Horren harira, alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Ikusten denez, oro har, ez da betetzen ari gehieneko epeak sei hilabetekoak direla dioen araudia. Esan beharra dago, hala ere, onuradunak laguntza ekonomikoa jasotzen duen kasuetan, eskaera aurkezten duenetik sei hilabete iragandakoan sorrarazten dela jaso beharreko diru kopurua, berdin dio noiz ebazten den espedienteak.

- Aurrekoa gorabehera, 2012an bai guztizko epea bai prestazioetarako berariazko epeak laburtu egin dira 2010eko eta 2011ko datuen aldean. Hala, guztizko epea ehuneko 30 laburtu da aztertutako aldian; adinekoentzako egoitza-arretari eta etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ekonomikoari buruzko ebazpenak nabarmentzen dira, epeak hurrenez hurren ehuneko 36 eta ehuneko 30 murriztu baitira arlo horietan.

- Aztertutako urteetan prestazio mota batetik bestera alde adierazgarriak ikusten dira ebazpenak emateko batez besteko epeetan. Adibidez, 2012an ezgaitasuna dutenentzako eguneko arretari dagokio batez besteko eperik laburrena, zazpi hilabete, eta buru-gaixoentzako egoitza-arretari dagokio eperik luzeena, 16 hilabete pasatxo.

g) Bermatutako prestazio indardunen eta indargabetuen zerrenda, eta haiek kudeatzeko eredia (2010-2012)

Hona hemen Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioarekin zuzeneko zerikusia duten eta bermaturik dauden, hau da, onuradunaren eskubide diren prestazio indardunak eta horietako bakoitzaren kudeaketa-eredua:

Bermatutako prestazioa	Kudeaketa-eredua
Larrialdietarako telefono zerbitzua	Pribatua
Laguntzarekiko garraio egokituaren zerbitzua	Pribatua
65 urtez beherako pertsonentzako eguneko zentroaren zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Eguneko zentroaren zerbitzua EPSZetan	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Adineko pertsonentzako eguneko zentroaren zerbitzua	Publikoa/privatua
Eguneko zentro psikogeriatrikoaren zerbitzua	Publikoa/privatua
65 urtez beherako pertsonentzako eguneko egonaldietarako zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Adineko pertsonak egunez egoteko zerbitzua	Publikoa/privatua
Zentro psikogeriatrikoan egunez egoteko zerbitzua	Publikoa/privatua
65 urtez beherako pertsonentzako gaueko egonaldietarako zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Buruko eritasuna duten pertsonentzako gaueko egonaldietarako zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Adineko pertsonak gauez egoteko zerbitzua	Publikoa/privatua
Egoitza psikogeriatrikoan gauez egoteko zerbitzua	Publikoa/privatua
65 urtez beherako pertsonentzako aldi baterako egoitza-egonaldien zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Buruko eritasuna duten pertsonentzako aldi baterako egoitza-egonaldien zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Adineko pertsonentzako egoitzan aldi baterako egonaldiak egiteko zerbitzua	Publikoa/privatua
Egoitza psikogeriatrikoan aldi baterako egonaldiak egiteko zerbitzua	Publikoa/privatua
65 urtez beherako pertsonen egoitza-arreta emateko zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Buruko eritasuna duten pertsonen egoitza-arreta emateko zerbitzua	Pribatua / kanpoko kudeaketa duen zentro berekia
Adinekoei egoitza-arreta emateko zerbitzua	Publikoa/privatua
Zentro psikogeriatrikoan egoitza-arreta emateko zerbitzua	Publikoa/privatua
Mendekotasuna ebaluatzeko zerbitzua	Publikoa
0-3 urte bitarteko haurrei arreta goiztiarra emateko zerbitzua	Publikoa
Mendekotasuna duten pertsonen laguntzaile pertsonalerako laguntza ekonomikoak	Mendekotasunaren arloan jasorik dauden prestazioak, inolako kudeaketa-eredurik ez dutenak, prestazio ekonomikoak direlako
Mendekotasuna duten pertsonen etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ekonomikoak	
Mendekotasuna duten pertsonen etxean laguntzeko gutxieneko laguntzak	

Goiko taulan ageri denez, badira bermatutako 26 prestazio, eta horietatik hiru berez ez dira zerbitzu-prestazioak, onuradunarentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak baizik. Gainerako 23etatik bi modu publikoan kudeatzen dira, bederatzi modu pribatuan kudeatzen dira, edo Nafarroako Gobernua-renak izanik kanpo-kudeaketa duten zentroyen bitartez; beste 10 modu publiko nahiz pribatuan kudeatzen dira, eta gainerako biak modu pribatuan bakarrik.

Aztertutako aldiak ez da prestazio bakar bat ere indargabetu; hala ere azpimarratu behar lirateke inguruabar hauek:

- Estatuko eta foru komunitateko mendekotasun arloko arauen aldaketak, gorago azalduetako ondorioak ekarri dituztenak.
- Mendekotasuna duten pertsonen laguntzaile pertsonalerako laguntza ekonomikoak eta mendekotasuna duten pertsonen etxean laguntzeko gutxieneko laguntzak iraungi beharreko prestazio ekonomikoak dira.

h) Nafarroan baloratutako pertsonen profila 2012ko abenduaren 31n

- Mendekotasun graduren bat duten pertsona baloratuetatik ehuneko 66 emakumezkoak dira, eta ehuneko 34, gizonezkoak. Mendekotasun gradu guztietan, emakumezkoen portzentajea gizonezkoena baino handiagoa da, eta alde hori handitu egiten da mendekotasun gradua gehitu ahala.

Portzentaje horiek baloratzeko kontuan hartu behar da, biztanleriaren piramidea sexuen artean nola banatzen den ikusirik, adina handitu ahala emakumezkoen kopurua ere handitu egiten dela gizonezkoen kopuruaren aldean.

- Nafarroan mendekotasunaren balorazioa duten pertsonen adina taula honetan ageri den bezala banatzen da, ehunekotan:

	18 arte	18 eta 64 bitartean	65 eta 80 bitartean	80tik gora	Guztira
Nafarroa	3,85	17,58	18,04	60,53	100

Ikusten denez, 65 urtetik gorakoak dira mendekotasun graduren bat duten pertsona baloratuen ehuneko 78,57 baino gehiago, eta 18-65 urte bitarteko adina dute baloratutako pertsona guztien ehuneko 17,58k.

- Mendekotasun graduren bat duten pertsona baloratuak honela banatzen dira Nafarroako eremu geografikoen artean:

-

Eskualdea	Ehunekoa, Nafarroako populazio osoaren gainean	Mendekotasun handikoak	Mendekotasun larrikoak	Mendekotasun arinekoak	Mendekotasuna dutenak, guztira	Ehunekoa, Nafarroako mendekotasundunen guztizko kopuruaren gainean	Ehunekoa, eskualdeko populazioaren gainean
Nafarroako ipar-mendebaldea	7,9	298	501	548	1.347	10,1	2,6
Nafarroako ipar-ekialdea	3,3	134	207	216	557	4,2	2,6
Lizarra	11,2	483	682	744	1.909	14,4	2,6
Tafalla	7,2	249	422	513	1.184	8,9	2,5
Tutera	15,1	520	857	986	2.363	17,8	2,4
Iruñerria	55,3	1.498	2.098	2.333	5.929	44,6	1,7
Guztira	% 100	3.182	4.767	5.340	13.289	100,0	2,1

Nafarroako biztanlerian mendekotasuna dutenen portzentajea ehuneko 2,1 da. Eskualdeen artean ez dago alde adierazgarririk mendekotasuna dutenen portzentajeetan. Portzentajerik txikiena Iruñerrian dago (ehuneko 1,7), eta handiena Nafarroako ipar-mendebaldean, Nafarroako ipar-ekialdean eta Lizarrako eskualdean (ehuneko 2,6).

i) Mendekotasunari buruzko Legearen ezarpena lurraldeka baloratzeko eskala (2012ko abendua)

Argibide gisa, jarraian azaltzen da zer nolako emaitzak lortu dituen Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Kudeatzaileen Estatu Elkarteak Mendekotasunari buruzko Legearen ezarpena lurraldeka baloratzeko eskala bat erabiliz, 12 osagai dituena, besteak beste pertsona onuradunen portzentajea biztanleriaren gainean, eskaeren portzentajea biztanleriaren gainean, tokian tokiko gizarte zerbitzuen sarearekiko integrazio eraginkorra etab.

Elkarte horrek argitaratutako azken txostena 2013ko urtarrilekoa da, eta bertan ageri denez, 1etik 10era bitarteko eskalan, Espainian Mendekotasunari buruzko Legearen batez besteko aplikazio maila apala da, 4,72 puntukoa besterik ez.

Gaztela eta Leongo erkidegoa dago ongien, 9,2 punturekin, eta ondoren Euskal Autonomia Erkidegoa, 7,5 punturekin. Nafarroa zortzigarren lekuan dago, 5,4 punturekin. Kanariak eta Valentziako Erkidegoa daude ranking-eko postu apalenetan, hurrenez hurren 2,1 eta 0,5 puntu dituztela.

j) Mendekotasun sistemaren finantzaketa Nafarroan (2011-2012)

Gainerako autonomia erkidegoetan bezala, mendekotasunaren arloko gastua hiru eragileren bidez finantzatzen da: Estatuko Administrazio Orokorraren, Foru Administrazioaren eta prestazio edo zerbitzua jasotzen duen onuradunaren bidez.

Finantzaketa da legearen alderdi polemiko eta eztabaidatuenetako bat. Sistemari gutxien garatu den atala omen da, eta, oraingo egoera ekonomikoan, benetako premiak finantzatzeko arazo handienak agertzen dituena.

Kontuen Ganberaren 2011ko martxoko txostenean jada aipatu zenez, Departamentuaren eta PANaren aurrekontu programak eta egitura, Departamentuaren egitura organikoaren aldaketak eta zeharkako kostuen eta gastu orokorren banaketarako sistemaren falta, bestalde, oztopo dira gure erkidegoan mendekotasuna dutenentzako babesaren arloko guztizko gastua zentzuz zehazteko.

Horrez gain, dauden jarraipen sistemak ez dute informazio egoki eta nahikorik eskaintzen mendekotasunaren arloko kostuei eta finantzaketari buruz, ez delako Estatuan mendekotasunaren arloan ematen diren zerbitzuen kostua zehazteko moduko kostu-sistema homogeneorik taxutu.

Hori gorabehera, gutxienez ere Nafarroan mendekotasunari buruzko legedia aplikatzearekin zuzenean zerikusia luketen gastuak zenbateteko saioa egin da.

Hala, Nafarroan mendekotasunari buruzko legedia aplikatzeak gutxienez ere eraginen lukeen gastuaren zenbatespena egin da, araudi horren aplikazioarekin lotura zuzena duten gastu guztiak zenbatuz, eurotan:

	Mendekotasuna dutenak babesteko gutxieneko gastua 2011n		Mendekotasuna dutenak babesteko gutxieneko gastua 2012an	
	Inbertsioak eta kapital-transferentziak barne	Inbertsioak eta kapital-transferentziak sartu gabe	Inbertsioak eta kapital-transferentziak barne	Inbertsioak eta kapital-transferentziak sartu gabe
PANA	16.553.973	16.553.973	15.898.914	15.898.914
Auton. Perts. Sust. eta Mend. Preb. Zuzendariordetza	11.542.549	11.515.375	11.448.542	11.448.542
Mend. Baliab. eta Kudeak. Zuzendariordetza	74.752.190	72.695.098	76.172.841	73.305.519
Mend. Zerbitzuen Zuzendariordetza	50.158.159	50.158.159	35.221.208	35.221.208
Guztira	153.006.871	150.922.605	138.741.505	135.874.183

Ikusten denez, behetik jota, zeharkako gastuak eta gastu orokorrak erantsi behar bailirateke, mendekotasunaren arloko gastua (inbertsioak eta kapital-transferentziak barne) 138,74 milioi eurokoa izan zen 2012an, eta ehuneko bederatzai jaitsi zen 2011ko gastuaren aldean. Inbertsio eta kapital-transferentzien eragina ezabatzen badugu, 2012ko gastua 135,87 milioi eurokoa izan zen 2012an, eta ehuneko 10 jaitsi zen 2011koaren aldean.

Kontuan hartu behar da, halaber, izan litezkeela Nafarroan soilik eskaintzen diren prestazioak, Estatuan aurreikusitako gabeak, zenbatetsitako zifretan bilduta dauden gastuekin finantzatzen direnak.

Aurreko datuetatik abiatuz, Nafarroako mendekotasunaren arloko 2011ko eta 2012ko finantzaketaren egitura lortu da, kontuan izanik Departamentuak zenbateko diru-sarrerak lortu dituen Mendekotasunari buruzko Legean jasotako prestazioen erabiltzaileen kuoten bidez eta Estatuak zenbateko ekarpena egin duen. Estatuaren ekarpen gisa, murriztu egiten da Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpena, Foru Komunitatean bizi den onuradun bakoitzarentzat, haren mendekotasun mailaren arabera, Estatuko araudian zehaztutako gutxieneko maila bermatuari dagokion heinean, eta kenketaren bidez zehazten da Nafarroako Gobernuari legokiokeen gastua. Emaizta hauek lortu dira:

	2011		2012	
	Zenbatekoa (eurotan)	Finantzaketa-portzentajea eragilearen arabera	Zenbatekoa (eurotan)	Finantzaketa-portzentajea eragilearen arabera
Nafarroako Gobernuaren gastua	107.699.700	70	95.669.268	69
Prestazioen erabiltzaileen kuotak	32.226.048	21	30.503.209	22
Estatuaren ekarpena	13.081.123	9	12.569.028	9
Guztira	153.006.871	100	138.501.706	100

Ikus daitekeenez, finantzaketa-portzentajeak antzekoak izan dira azken bi urteetan. Nafarroako Gobernuak ehuneko 70 inguru finantzatu du, erabiltzaileek ehuneko 21 eta Estatuak gainerako ehuneko bederatzia. Portzentaje ia berdinak aterako genituzke, inbertsioak eta kapital-transferentziak sartu gabe kalkulatuko bagenu gastua.

Aurreko zenbakiak aztertzeko, kontuan izanik jarritako funts publikoen guztizko zenbatekoari gastu gehiago erantsi behar litzaizkiokeela eta erabiltzaileengandik nahiz Estatuarengandik datozen diru-sarreraren zenbatekoak zuzenak direla, Nafarroako Gobernuaren ekarpenaren portzentajea aurreko taulan ageri dena izanen litzateke behetik jota, eta erabiltzaileena eta Estatuarena pixka bat txikiagoak izanen lirateke.

Azken batean, ematen diren zerbitzuen benetako kostuetatik Estatuak ezarritako finantzaketa-moduluetara alde handia dago, eta, egungo krisiaren ondorioz, Estatuak hitzartutako maila finantzatzeko bere aurrekontuetan dituen kontusailak urriak dira. Horregatik sortzen dira eragileen arteko alde adierazgarri horiek, bakoitzaren finantzaketa-eragilearen pisuari dagokionez.

V.4. KONTUEN GANBERAREN 2011KO MARTXOKO TXOSTENEAN EMANDAKO AHOLKUEN JARRAIPENA

Erakunde honek aurreko txostenean Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioari buruz egin-dako bost aholkuei dagokionez, hau esan daiteke:

- PANAREN egitura organikoa aldatu egin zen, Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioak sorrarazitako beharrei egokitze aldera. Beraz, aholkua betetzat eman daiteke.
- Araudiaren aplikazioarekin zerikusia duten prozedurak hobetzeko prozesuan aurrera egiteko gomendioari dagokionez, horren ezarpena hasitzat jo daiteke.
- Oraindik ez da egiten hasi beste hiru aholkuek diotena: kostu-sistema bat ezartzea, dauden datu-baseen ustiapen informatikoari lotuta, eta aplikazio integral bat sortzea, soil-soilik agertuko litzatekeena mendekotasunarekin loturiko gastuak eta diru-sarrerak.


Txosten hau Karen Moreno Orduña kontu-ikuskatzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria

Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. PERTSONEN AUTONOMIARAKO NAFARROAKO AGENTZIAREN (PANA) ORGANIGRAMA



2. ERANSKINA. ESTATUKO ETA FORU KOMUNITATEKO 2011-2012 BITARTEKO ARAUDIAREN BERRIKUSPEN JURIDIKOA

39/2006 Legeak, Mendekotasunari buruzko Legeak, taxututako sisteman eragina izan duten hainbat arau eman dira Foru Komunitatean eta, batik bat, Estatuan. Ondoren azalduko ditugu.

1. Estatuko araudia

- Aztertutako aldian egin diren aldaketa nagusiak hauek dira:
- 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun egoera baloratzeko ezarritako baremoa onesten duena.
- 175/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baitira ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretua, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko zerbitzuen babes-intentsitateak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko irizpideei buruzkoa, eta maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretua, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileen gizarte segurantza arautzen duena.
- 569/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako pertsona onuradunei bermatu beharreko gutxieneko babes maila zehazten duena 2011ko ekitaldirako.
- 570/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretua, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko zerbitzuen babes-intentsitateak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko irizpideei buruzkoa, eta Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko prestazio ekonomikoak ezartzen baitira 2011ko ekitaldirako.
- 2011ko abuztuaren 3ko Ebazpena, Gizarte Politikako eta Kontsumoko Idazkaritza Nagusiak emana, I. graduko mendekotasun egoera aitortua dutenei autonomia pertsonalaren sustapenerako eskaintzen zaizkien zerbitzuen edukia zehazteari buruzko Erabakia argitaratzen duena.
- 2011ko irailaren 30eko Ebazpena, Gizarte Politikako eta Kontsumoko Idazkaritza Nagusiak emana, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren erabaki bat argitaratzen duena, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren jardunbide egoiak kontzeptualizatu, landu eta ebaluatzeko irizpide bateratuei buruzkoa.
- 20/2011 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributua eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Mendekotasunari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen azken xedapenetako lehenengoaren lehen idatz-zatia berridazten da, lege horretan jasotako mendekotasun prestazioetarako eskubi-dearen eraginkortasunaren egutegia aldatuz.

- 2/2012 Legea, ekainaren 29koa, Estatuaren 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Berekin ekarri du Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotako zenbait manuren aplikazioa etetea.

2012an zehar 39/2006 Legearen 7.2 artikulua, 8.2.a) artikulua, 10. artikulua, 32.3 artikulua lehen paragrafoaren eta lehen xedapen iragankorren aplikazioa eten du; hau da, hitzartutako mailaren aplikazioa eten du (40. xedapen gehigarria).

Aldatu egin du 39/2006 Legearen azken xedapenetako lehenengoaren lehen idatz-zatiaren testua (azken xedapenetako zortzigarrena).

- 2012ko uztailaren 13ko Ebazpena, Gizarte Zerbitzuetarako eta Berdintasunerako Estatu Idazkaritzak emana, AMASen Lurralde Kontseiluak autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistema hobetzeko hartutako erabakia argitaratzen duena. AMASen Lurralde Kontseiluak, 2012ko ekainaren 10eko bileran, ebazpenaren eranskinean jasotako erabakia onetsi zuen, AMAS hobetze aldera.

Hobekuntzarako 16 proposamen onesten ditu erabaki horrek, eta autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako prestazioen erabiltzaileen ahalmen ekonomikoari eta prestazioen kostuan parte hartzeari buruzko irizpideak eta edukiak. Administrazio publiko eskudunei sei hilabeteko epea ematen die, erabakiaren datatik aurrera, bertan aurreikusitakoa betetzeko behar diren xedapen arauemaileak susta ditzaten, eta urtebeteko epea ezartzen du, erabakiaren datatik hasita, aurretiaz aitortutako mendekotasun prestazioak egokitzeko, bidezkoa bada.

- 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

AMASen Lurralde Kontseiluaren 2012ko uztailaren 10eko Erabakian jasotako proposamenei ekiten die.

20/2012 Errege Lege-dekretu horrek, mendekotasunerako sistema arrazionalizatzeko aldera, xedeztat du prestazioen intentsitatearen eta bateragarritasunaren gutxieneko eduki bateratua arautzea administrazio jardule guztientzat; horrenbestez aldaketa garrantzitsua dakar, helburutzat baitu administrazio guztientzat prestazioen intentsitatearen eta bateragarritasunaren eduki orokorra arautzea, sistemako babes maila guztiak bere baitan bilduko lituzkeena.

Horretarako, Mendekotasunari buruzko Legearen hainbat alderditan aldaketa hauek egiten ditu, labur azalduta:

Administrazioak lehendik daukan dokumentazioa aurkeztu behararen salbuespena kentzen da 4.4 artikulutik; 8. artikuluan Gizarte Zerbitzuen eta AMASen Lurralde Kontseilua sortzen da, lehengo AMASen Lurralde Kontseilua eta Gizarte Gaietako Konferentzia Sektoriala batuz; 9.1 artikuluan erantsen da autonomia erkidegoen artean gutxieneko maila esleitzean kontuan hartuko direla onuradunen kopurua, mendekotasun gradua eta aitortutako prestazioa; 14.6, 17.1, 18.2, 26.2, 27., 28.3, 30.1 eta 38.3 artikuluetan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian mailaren aipamena kentzen da; 19. artikulua, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoari buruzkoa, gradu guztiei dagokie (lehenago mendekotasun handiari bakarrik); 23. artikuluan etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen da; 25 bis artikulua berria gehitzen da 4. atal berrian, prestazio ekonomikoaren eta zerbitzu-emateen bateraezintasunen araubideari buruzkoa; 27.3 artikuluan gehitzen da ezin izanen dela mendekotasun gradua zehaztu *“baremo honetan ezarritakoez bestelako prozeduren bitartez”*; 29.1 artikuluan aurreikusten da administrazio eskudunak zehaztuko duela etxeko zainketengatik prestazio ekonomikoa, gizarte zerbitzuek proposaturik; eta azken xedapenetako lehenengoan atzeratu egiten da mendekotasun prestazioetarako eskubidearen eraginkortasuna (20/2012 Errege Lege-dekretuaren 22. artikulua, 7.etik 10.era bitarteko xedapen gehigarriak, biak barne, 8.etik 13.era bitarteko xedapen iragankorrak, biak barne, eta azken xedapenetan lehenengoa).

Aldaketa horiek guztiak ikusita, ondorio hauek atera dira:

a) Egitura berria ezartzen da; bertan eutsi egiten zaie mendekotasun egoeraren sailkapeneko hiru graduei, baina kendu egiten dira mendekotasun gradu bakoitzaren barruko bi mailak, pertsonen autonomiari eta behar dituzten zainketen intentsitateari erreparatuta zehazten zirenak.

b) Etxeko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalen laguntzeko prestazio ekonomikoa aldatu egiten da: batetik zenbatekoa murrizten zaie bai uztailaren 15ean dagoeneko mendekotasun gradua eta maila aitortuak dituztenei, baita mendekotasun egoeraren aitortpena egun hori baino lehenago eskatu bazuten ere ebazpen administratiboaren zain daudenei eta eskatzaile berriei ere. Bestetik, atzeraginezko ondoreak ukitzen dira.

c) Zaintzaile ez-profesionalen egoera aldatu egiten da Gizarte Segurantzari dagokionez, alegia, jada ez dira nahitaez sartzen Gizarte Segurantzako Araubide Orokorraren aplikazio eremuan eta altarekin parekatutako egoeran, 615/2007 Errege Dekretuan nahitaezkatzat araututako hitzarmen berezia sinatzea aukerakoa bilakatzen delako 2012ko uztailaren 15etik aurrera (EDLaren 8. xedapen gehigarria).

d) Berrir definitzen da laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, mendekotasuna duten guztiengana hedatzen da orain, gradu etako edozeinetan (orain arte mendekotasun handiko pertsonentzat baizik ez zen) (Mendekotasunari buruzko Legearen 19. artikulua).

e) Lehengo araudiak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren definizioan bereizi egiten zituen etxeko beharretarako arretarekin zerikusia duten zerbitzuak (etxea garbitzea, arropa garbitzea, sukaldeko lana eta abar) eta eguneroko jarduerak egiteko arreta pertsonalarekin zerikusia duten zerbitzuak (23. artikuluko a) eta b) letrak), baina erreformak zerbitzu horien ordena alderantzikatzen du, eta zehazten du, batik bat, etxeko beharretarako arretarekin zerikusia duten zerbitzuak (etxea garbitzea, arropa garbitzea, sukaldeko lana eta abar) soilik eman daitezkeela arreta pertsonaleko zerbitzuekin batera (39/2006 Legearen 23.b) artikuluko azken tartekia). Beraz, aldaketa horren ondoren, jada ezin izanen da etxeko arreta zerbitzua soilik eman, orain arte eman den bezala; horrek badu eragina Mendekotasunari buruzko Legea sortu baino lehenago toki entitateek aspaldi-aspalditik ematen zuten etxez etxeko laguntza zerbitzuan.

f) Prestazioen bateraezintasunen araubide berria ezartzen da (Mendekotasunari buruzko Legearen 25 bis artikulua berria), eta horren arabera: a) Prestazio ekonomikoak bateraezinak izan direla elkarrekin eta etxeko laguntza zerbitzuekin, eguneko eta gaueko zentroaren zerbitzuarekin eta egoitza-arretarekin. b) Zerbitzu guztiak bateraezinak izan direla elkarrekin, telelaguntza zerbitzua izan ezik, hori bateragarria izan direla baita mendekotasun egoerei aurrea hartzeko, autonomia pertsonala sustatzeko, etxeko laguntzarako eta eguneko eta gaueko zentroaren zerbitzuekin.

g) Nolanahi ere, administrazio publiko eskudunek bateragarritasuna ezarri ahal izan dute mendekotasuna duen pertsonari etxean bizitzeko jarraitzea ahalbidetzen dioten laguntzarako, zainketa-erako eta arretarako prestazioen artean.

h) Murriztu egiten dira etxeko zainketa-erako prestazio ekonomiko gehieneko zenbatekoak. Estatuko Administrazio Orokorrek bere gastua murrizten du AMASeko gutxienezko finantzaketa mailako zenbatekoen murrizketaren bitartez. Ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateak aurrekusi baino diru-sarrerara gutxiago jasoko ditu Estatuko Administrazio Orokorretik, sistemako gutxienezko babes mailaren finantzaketa-erako.

i) Mendekotasunerako zerbitzu eta prestazioen aplikazioaren egutegia aldatzen da, halako moduan non atzeratu egiten baita prestazio horietarako eskubidearen eraginkortasuna. Eskubidea arian-arian erabiltzen da, mailaz maila.

III. titulu hori ("Mendekotasun sistema arrazionalizatzeko neurriak") eta berarekin bat datozen xedapenei dagokienez, esan beharra dago EDL honen artikulua batzuk Konstituzioaren kontrakoak izan daitezkeela, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak urratzeagatik. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak 5763/2012 konstituziokontra-kotasun-errekurtsoa jarri zuen 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 22.8 eta 22.9 artikuluen, hamargarren xedapen iragankorraren, hamabigarren xedapen iragankorreko lehen idatz-zatiaren eta azken xedapenetan laugarreneko hirugarren paragrafoaren aurka; Konstituzio Auzitegiak tramitatze-ko onartu zuen 2012ko azaroaren 13ko Probidentziaren bidez.

- 1364/2012 Errege Dekretua, irailaren 27koa, Ezgaitasun gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua aldatzen duena.

2. Foru araudia

Nafarroako Foru Komunitateko araudian egindako aldaketei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

- 1/2011 Foru Legeak, otsailaren 15ekoak, mendekotasun egoera aitortzeko prozedura ezartzen du eta Nafarroan mendekotasun egoera baloratzeko lantaldeak eta organoa osatuko dituzten langileen antolaketa, eginkizunak eta araubidea ezartzen ditu, eta indargabetu egiten du urtarrilaren 19ko 6/2009 Foru Dekretua, Mendekotasuna baloratu eta aitortzeko eta mendekotasuna duten pertsonen-zako Banakakoaren Arreta Programa prestatzeko prozedurak ezartzen dituena.

- 6/2011 Foru Dekretuak, urtarrilaren 24koak, Nafarroako gizarte zerbitzuetako erreferentziako profesionala arautzen du. Hura izatea pertsonen eskubidetzat jotzen da, gizarte zerbitzuei dagokienez, eta haren eginkizuna da pertsonari orientabideak eta laguntza ematea esku-hartze sozialeko prozesu osoan.

- 38/2011 Foru Aginduak, otsailaren 4koak, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emanak, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko eta haien zaintzaileei laguntzeko diru-laguntzen zenbatekoa ezartzen du.

- 82/2011 Foru Aginduak, martxoaren 8koak, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emanak, zerbitzuari lotutako prestazioen zenbatekoa ezartzen du 2011. urterako.

- 137/2011 Foru Dekretuak, abuztuaren 24koak, Nafarroako Mendekotasunerako Agentziaren estatutuak onesten ditu. Otsailaren 15eko 1/2011 Foru Legea onetsi izanak eta, gainera, uztailaren 5eko 61/2011 Foru Dekretuaren bitartez Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuaren egitura organiko berria onetsi izanak eragindako aldaketa da.

- 136/2011 Foru Dekretuak, abuztuaren 24koak, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duenak, Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendari-tza Nagusiari atxikitzen dio Nafarroako Mendekotasunerako Agentzia.

- 1/2011 Foru Lege-dekretuak, urriaren 6koak, defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituenak, aldatu egiten du ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua, Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroa onesten duena, indarrak gabe utziz Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako prestazio ekonomikoak Nafarroako kontsumoko prezioen indizearen arabera urtero eguneratzeko

agintzen zuen araua, eta deklaratzuz elkarrekin bateraezinak direla Gizarte Zerbitzuen Zorroan mendekotasunerako arretaren arloan jasotako prestazioak, baina arlo horretan eskumena duen kontseilariak arauaren salbuespenak egin ditzakeela, horrelako prestazioen bateragarritasuna ezarri ahal izateko.

Bigarren xedapen iragankorrak dioenez, ordea, foru lege-dekretuak indarra hartzean (2011ko urriaren 6an) mendekotasunari arreta emateko arloko prestazio baten baino gehiagoren eskubidea onartua dutenek 2011ko abenduaren 31ra arte eutsiko diote eskubide horri. Bitartean, bat aukeratu beharko dute, non ez den haien bateragarritasuna espresuki erabaki.

- 103/2011 Foru Aginduak, urriaren 21ekoak, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emanak, urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege-dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, hainbat prestazio eta zerbitzuren arteko bateragarritasun araubidea ezartzen du mendekotasunaren arretarako arloan (Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak deuseztatu egin du 2012ko irailaren 27ko 548/2012 Epaia bidez, eta deuseztapenak epaia argitaratzen denetik sortzen ditu ondorioak; ikus Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legearen 73. artikulua).

- Erabakia, Nafarroako Mendekotasunerako Agentziako Gobernu Kontseiluak 2011ko azaroaren 24an hartua, erakunde autonomo horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratzen dituen 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera.

- 191/2011 Foru Agindua, azaroaren 25ekoa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, mendekotasun moderatua (2. maila) duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoak arautzen dituen 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera (indargabetuta dago, urtarrilaren 18ko 62/2013 foru Aginduaren xedapen indargabetzaile bakarraren bidez).

- 247/2011 Foru Aginduak, abenduaren 23koak, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emanak, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei laguntzeko diru-laguntzen deialdia onesten duenak, indarrak gabe uzten du ekainaren 1eko 211/2009 Foru Agindua, eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak (NJANeko Administrazioarekiko Auzien Salako 1. Atalak deuseztatu egin du irailaren 27ko 549/2012 Epaia bidez – JUR\2012\337157–, eta epaia argitaratzen denean sortzen dira ondorioak; ikus AAJLren 73. artikulua).

- 19/2011 Foru Legeak, abenduaren 28koak, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, mendekotasuna duten pertsonak etxean bizitzen jarraitzeko eta haien zaintzaileei laguntzeko diru-laguntzen gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak ezartzen ditu 2012ko ekitaldirako (2. xedapen gehigarria).

Adierazten du, halaber, hurrengo ekitaldietan Nafarroako Gobernuak ezarriko dituela zenbateko horiek foru dekretu bidez, eta zenbatekoak ez direla inolaz ere dagokion errege dekretuak maila eta gradu bakoitzerako onetsitakoak baino txikiagoak izanen, AMASen Lurralde Kontseiluak erabakitakoa-rekin bat.

Foru lege horrek ezartzen dituen mugen barruan, kasuan kasuko laguntza ekonomikoaren zenbatekoa onuradunaren mendekotasun gradu eta mailaren eta gaitasun ekonomikoaren arabera zehaztuko da, gizarte politikaren arloan eskumena duen kontseilariak foru agindu baten bidez ezarritako moduan.

Halere, laguntza ekonomikoaren onuradunak beste edozein prestazio ere jasotzen badu – larrialdietarako telefono zerbitzua salbu–, eta unean unean ezarritakoari jarraikiz bateragarria bada, hura jasoko du, mendekotasun gradu eta maila bakoitzerako aurreko idatz-zatian ezarri den gutxieneko zenbatekoan.

- 174/2012 Foru Aginduak, apirilaren 19koak, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emanak, "Eguneko Zentroaren Zerbitzua Adinekoentzat" eta "Adinekoei Arreta Emateko Landa Zerbitzua" sailkatzen ditu, eta zerbitzu berritzaletzat jotzen ditu, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuaren eranskinean ezarri zirenetako bakar batekin ere ezin baitira parekatu.

- 35/2012 Foru Dekretuak, uztailaren 2koak, Gizarte Politiketako Departamentuaren oinarrizko egitura organikoa ezartzen du (izen aldaketa), eta uztailaren 25eko 73/2012 Foru Dekretuak Gizarte Politiketako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen du.

- 74/2012 Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren estatutuak onesten dituena. Estatutu berriak onesten dira, giza baliabideak eta baliabide materialak hobeki kudeatzeko eta, ahal dela, erakunde autonomoaren egitura sinplifikatzeko. Erakundearen egitura berria ezartzen da, bi zuzendariordetza eta zortzi atalekoa. Horiez gain, Agentziaren mendeko bost zentroek osatzen dute egitura.

- 127/2012 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, Nafarroako Mendekotasunerako Agentziaren izena aldatzen duena.

Foru dekretu horrek indarra hartu duenetik, ulertu behar da edozein arautan Nafarroako Mendekotasunerako Agentziari buruz egiten diren aipamen guztiak Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziari buruzkoak direla.

- 732/2012 Foru Agindua, abenduaren 24koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, zerbitzuari lotutako prestazioen zenbatekoa ezartzen duena.

Hauxe dio: "Aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuak Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aldatu du, besteak beste egitura berria ezarri baitu, soilik gradutan oinarritua, mendekotasun mailarako, Estatuaren ekarpena txikiagotuz gutxieneko babes mailaren finantziatorako eta prestazioak txikiagotuz.

Hori dela eta, foru agindu honen helburua da zerbitzuari lotutako ekarpenaren zenbatekoak ezartzea, uztailaren 23ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan mendekotasuna sailkatzeko zehaztutako egitura berriarekin bat".

Foru agindu hau aplikatuko zaie mendekotasunaren maila aitortzeko 2012ko uztailaren 15etik aurrera onetsitako ebazpenei eta ondorioak sortuko ditu 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Foru agindua 2013ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Edonola ere, ondorioak 2012ko uztailaren 15etik aurrera sortuko ditu, baldin eta interesdunaren aldekoak badira, egun horretan indarra hartu baitzuen Aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko Errege Lege-dekretuak.

- 62/2013 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, mendekotasuna dutenentzako laguntzaren arloko hainbat prestazio eta zerbitzuren arteko bateragarritasun araubidea ezartzen duena eta mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoak arautzen dituena.

Foru agindu horren zioen azalpenak dioenez, esparru orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroan daude bilduta sistemako prestazioak, eta Gizarte Zerbitzuen Zorro hori onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuak aldaketa nabarmenak izan ditu honako arau hauek indarra hartu ondoren: urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege-dekretua; 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea; eta Aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretua.

Horietako lehenak, urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege-dekretuak, defizitaren helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituenak, ezartzen du ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan onetsi zen Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroko prestazioak bateraezinak direla beren artean mendekotasuna dutenentzako laguntzaren arloan, eta Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren foru aginduen bitartez erabakitzen ahalko dela prestazio horietako batzuen arteko bateragarritasuna.

Bestalde, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak ezartzen dira, 2012ko ekitaldirako. Bertan adierazten da kasu bakoitzean dagokion laguntza ekonomikoaren zenbatekoa onuradunaren mendekotasun gradu eta mailaren eta gaitasun ekonomikoaren arabera ezarriko dela, aipatutako mugen barruan, gizarte politikaren arloan eskumena duen kontseilariak emandako foru agindu batean ezarritako moduan.

Xedapen berean adierazten da laguntza ekonomikoaren onuradunak beste edozein laguntza bateragarri ere jasotzen badu –larrialdietarako telefono zerbitzua salbu–, hura jasoko duela, betiere mendekotasun gradu eta maila bakoitzerako xedapen gehigarri horretan ezarri den gutxieneko zenbatekoan.

Lege arau horietan ezarritakoa betetzeko, bi foru agindu eman ziren: 103/2011 Foru Agindua, urriaren 21ekoa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, hainbat prestazio eta zerbitzuren arteko bateragarritasun araubidea ezartzen duena mendekotasuna dutenentzako laguntzaren arloan; eta 247/2011 Foru Agindua, abenduaren 23koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoak arautzen dituena. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak deklaratu zuen bi foru agindu horiek ez zirela zuzenbidearen arabekoak, haien tramitazioan legeetan ezarritako prozedurari ez baitzitzaion jarraitu. Horregatik, segurtasun juridiko handiena segurtatzeko, beharrezkoa da bi gai horiek lehenbailehen arautzea. Haien edukia ikusita, eta eragimena- ren eta gardentasunaren printzipioekin bat, bidezkotzat jotzen da biak foru agindu bakarrean arautzea.

Foru aginduak hainbat prestazio eta zerbitzuren arteko bateragarritasun araubidea ezartzen du mendekotasunaren arloan, mendekotasun egoeran daudenek laguntza egokia jaso dezaten, bakoitzaren egoera pertsonalaren arabera, Defizitaren helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituen urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege-dekretuan ezarritakoa errespetatuz, baita Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25 bis artikuluan xedatutakoa ere (artikulu berria, "Prestazioen bateraezintasun araubidea" izenekoa, Aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailearen 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez ezarria).

Halaber, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko laguntza ekonomikoen araubidea ezartzen da, uztailearen 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan ezarritako egitura berria kontuan hartuta. Egitura horretan, gradu bakoitzaren mendekotasun mailak desagertzen dira eta bakarrik graduak gelditzen dira mendekotasuna sailkatzeko.

Azken xedapen bakarrak honela zehazten ditu foru aginduaren "indarra hartzea eta ondorioak izateko eguna": *"Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Edonola ere, ondorioak sortuko ditu, baldin eta interesdunaren aldekoak badira, bi foru agindu hauek indargabetzen dituzten epaiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera: 247/2011 Foru Agindua, abenduaren 23koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoak onesten dituena; eta 103/2011 Foru Agindua, urriaren 21ekoa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, prestazioen arteko bateragarritasun araubidea ezartzen duena mendekotasuna dutenentzako laguntzaren arloan".*

3. ERANSKINA. MENDEKOTASUN PRESTAZIOAK BALORATU, ESLEITU ETA GAUZATZEKO PROZEDURA

Nafarroan otsailaren 15eko 1/2011 Foru Legeak arautzen du mendekotasun egoera eta sistemako prestazioetarako eskubidea aitortzeko prozedura. Halaber, arau horretan ezartzen dira mendekotasun egoera baloratzeko lantaldeetako langileen eta balorazio organoaren antolaketa, eginkizunak eta araubidea. Horren analisisan oinarrituz, honako fase nagusi hauek aipatu behar ditugu:

- a) Prozedura hastea.
- b) Baloratzeko taldeak eta organoa.
- c) Mendekotasun egoeraren balorazioa.
- d) Banakako Arreta Programa (BAP) egitea.
- e) Ebazpena eta prestazioen eraginkortasuna.
- f) Prestazioetarako eskubidearen berrikuspenak eta azkentzea.
- g) AMASen eragingarritasuna.

Jarraian, eta aurreko fase edo etapa bakoitzerako, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

1. Prozedura hastea

PROZEDURAREN HASIERA

Mendekotasun egoera aitortzeko eta AMASeko prestazioak jasotzeko eskubidea mendekotasun graduren bat izan dezakeen pertsona baten ekimenez edo hura ordezkatzeko beste pertsona baten ekimenez hasiko da. Haren izapidetzea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoaren arabera egiten da, betiere foru lege honetan ezartzen diren berezitasunekin.

Egoitzetan, eguneko zentroetan, lanerako prestatzeko zentroetan, errehabilitazio psikosozialeko zentroetan edo AMASeko edo Gizarte Zerbitzuen Zorroko zerbitzuen katalogoko beste edozein zerbitzutan laguntza hartzen duten pertsonen kasuan –dela Nafarroako Foru Komunitateko sare publikoan, dela itunduan–, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erraztasunak eman ahalko ditu eta sustatu ahalko du mendekotasun egoera aitortzean, interesdunaren eskubideak babeste aldera.

Aurreko idatz-zatian aipatutako pertsonen balorazioak, edozein dela ere haien mendekotasunaren gradua eta maila, ez du inongo eraginik izanen administrazio-ebazpenez jada, prozedurari hasiera eman aurretik, aitortuta izan ditzaketen eskubideetan.

ESKAERAK

Mendekotasun egoerari buruzko aitortenaren eskaera eta AMASeko prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortenaren eskaera egiten dira erregelamenduz ezarritako moduan eta baldintzekin, eta Administrazioak ez du exijituko bere bulegoetan duen dokumenturik.

Eskabide horretan adierazi behar da zer duen xede:

- Mendekotasunaren balorazioa soilik.
- Balorazioa egitea gehi sistemako prestazioak eta/edo zerbitzuak eskuratzea.
- Elbarritasun handiko pentsiorako jadanik aitorturiko egoerekin edo hirugarren baten laguntza beharrezkoa deneko ezgaitasun-egoera batekin homologatzea.

Eskabideari funtsean honako dokumentazioa gehitu behar zaio:

Mendekotasuna baloratzeko:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo egoitza-txartelarena, atzerritarren kasuan.
- Azken bost urteetan Espainiako lurraldean bizi izana frogatzeko ziurtagiria edo ziurtagiriak. Zeintzuk herritan bizi izan den adierazi behar dute.

- Osasun egoerari buruzko txostena, eredu normalizatuan.
- Familia liburua (soilik familia unitatean adingaberen bat bada).
- Mendekotasun egoeraren aitopeneren ziurtagiria (soilik Nafarroatik kanpo baloratu bada).
- Transferentzia ordaintzeko eskaera, bankuak bete.

Sistemako prestazioak jaso ahal izateko, baldin eta erabiltzaileak mendekotasun gradu bermatua lortzen badu eta BAPa egin behar bazaio:

- Espainiatik kanpo lortutako etekinen ziurtagiriak.
- Banku-saldoen ziurtagiriak.
- Eskatzaileak azken bost urteetan beste autonomia erkidego batzuetan bizi izan bada:
 - a) Estatuko Tributu Agentziak kapital higigarriaren azken bost urteetako etekinei buruz egindako ziurtagiria.
 - b) Autonomia erkidego horietan kokatutako finantza entitateen banku-ziurtagiriak.
 - c) Eskatzaileak ondasun higiezinak dituen probintzietako katastro-ziurtagiriak.
- Kapital higiezinaren eskualdaketen egiaztagiriak.
- Kapital higigarriaren eskualdaketen egiaztagiriak.
- Eskatzailea alarguna bada, jarauntsia onartzeko eskrituraren, testamentuaren edo azken borondatearen kopia.
- Dibortziatuta edo legez bananduta bada, epaia eta hitzarmen arauemailea.

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA

Eskaerak aurkeztu ahalko dira prozedura administratiboari buruzko araudian ezarritako edozein erregistrotan, eta espedientea izapidetuko da kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuaren bidez nahiz auzoko unitatearen bidez, edo gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuaren bidez edo osasun etxe baten nahiz osasun mentaleko zentro baten bidez.

ZUZENKETA

Hasteko eskaerak ez badiu biltzen exijitzen diren baldintza guztiak edo behar den dokumentazio aurkezten ez bada, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio hamar eguneko epean akatsa zuzen dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan. Interesdunak hori egiten ez badu, organo eskudunak eskaera ezetsi egingen du, eta behar den ebazpena emanen du legez ezarritako moduan.

TXOSTEN SOZIALA

Mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemaren prestazio bat eskuratzeko prozeduran, gizarte txosten bat eskatuko zaie interesduna bizi den udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuei, osasun etxeari edo osasun mentaleko zentroari. Txostenaren helburua izanen da eskatzailearen egoera soziala eta familiarra baloratzea; gainera, zerbitzu edo prestazio egokiena emateko orientabideak emanen ditu.

Kasuko pertsona Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldeko administrazio publikoaren titulartasuneko baliabide baten erabiltzailea baldin bada, zentroko zuzendaritzak eta gizarte langileak baliabidea kokatuta dagoen udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuekin batera egingen dute lan eskatzailearen txosten soziala egiteko.

2. Baloratzeko taldeak eta organoa

Nafarroan otsailaren 15eko 1/2011 Foru Legeak arautzen ditu mendekotasun egoera baloratzeko taldeetako langileen eta balorazio organoaren antolaketa, eginkizunak eta araubidea.

BALORAZIO TALDEAK

Balorazio taldeak izanen dira eskatzailearen mendekotasun gradua zehaztuko dutenak. Gutxienez balorazio talde bat egonen da.

Balorazio taldeek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Aplikatzea mendekotasun gradu eta maila buruzko balorazio-baremoa eta hiru urtez beherako adingabeentzako berariazko balorazio-eskala; bi horiek apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan ezarri ziren. Izan ere, errege dekretu horren bidez mendekotasunen bat duten pertsonen egoera baloratzeko baremazioa onartu zen.

b) Txostena egitea ohiko inguruneari eta irisgarritasunari buruz, horrela elementuak eskuratzeko, gradu eta mailari buruzko irizpen teknikoa egoki egiteko beharrezkoak direnak.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunaren aurrean formulatzea gradu eta mailari buruzko ebazpenaren proposamena, Nafarroan AMASeko prestazioetarako eta zerbitzueta-rako eskubidea aitortzeko prozedurari dagokionez.

d) Gradu eta mailari buruzko eta mendekotasun gradua eta maila berraztertze eskabideei buruzko irizpen teknikoak ematea.

e) AMASeko erabiltzaileei orientabide eta aholkuak ematea.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa parte deneko auzi-prozeduretan laguntza teknikoa eta aholkua ematea, mendekotasun egoera eta haren gradu eta maila baloratzeari dagokienez.

g) Legez edo erregelamendu bidez esleitu dakizkiekeen bestelako eginkizunak.

Balorazio taldeak lanbide anitzekoak izanen dira, funtzionarioez osatuak eta publikoak. Eredu bi-opsikosozialean enkoadratuta egonen dira eta beren lanbidearen berezitasunak ekarriz jardunen dute, betiere diziiplina arteko ikuspegi batetik.

BALORAZIO ORGANOA

Balorazio organoa funtzionario publikoen kasuko lanpostuen zerrendan definitutako langile teknika-riak osatuta egonen da. Aipatu organoa ondoko arloetan unibertsitate-titulua duen pertsona banak osatuko du: arlo sozialean, arlo psikologikoan eta arlo sanitarioan.

Balorazio organoak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Balorazioaren gaineko erreklamazioei buruzko txostena egitea, organo eskudunak erreklamazio horiek ebazteari begira.

b) Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea balorazio prozesuetan.

c) Legez edo erregelamendu bidez esleitu dakizkiekeen bestelako eginkizunak.

Balorazio taldeak eta balorazio organoa osatzen dituzten funtzionarioek gutxienez ere honako eza-gutzak eduki beharko dituzte:

- a) Balorazioa eta baremoa arautzen duen araua zorrotz ezagutzea.
- b) Mendekotasuna duten pertsonen taldeen ezaugarri funtzionalei buruzko behar adina ezagutza izatea, bereziki adingabeen kasuan, adimen-ezgaitasuneko kasuetan, buru-gaixotasunetan eta narriadura kognitibo handiena duten pertsonen kasuan.
- c) Balorazio teknikak egoki erabiltzea, bereziki elkarrizketa pertsonalean; izan ere, elkarrizketa arestian aipatutako taldeen berezitasunen arabera egin beharko da.
- d) Informazio iturri desberdinak erabiltzea: osasunari buruzko txostena, elkarrizketa pertsonala eta zuzeneko behaketa.
- e) Behar adinako praktika eta prestakuntza, lanbidean jardun aurretik harremanetan jartzeko balorazioa egiten duten langileak eta mendekotasuna baloratzeko egiazko egoerak.
- f) Baloratzailleen kualifikaziorako behar diren edukiak garatzen dituzten espezializazioko prestakuntza ikastaroak egitea.

Beharrezkotzat joz gero, balorazio-taldeek langile kualifikatuen aholkua eta laguntza tekniko edukiko dituzte –Nafarroako beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak izan beharko dira–, beren eskumenen arloan laguntza tekniko emateko. Lankidetza horren oinarriak tresna juridiko ego-kia izan beharko du eta kasuan kasu aplikatzekoak diren lege xedapenen arabera.

Balorazio taldeak organikoki gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunean egonen dira, edo, bestela, departamentu horren menpeko erakunde publiko baten egituran.

3. Mendekotasun egoeraren balorazioa

Pertsona baten egoera zehatza baloratzeko, mendekotasuna baloratzeko baremoa aplikatzen da, zeinak modua ematen baitu honako mendekotasun egoera hauek determinatzeko:

1. gradua. Mendekotasun arina: pertsona batek laguntza behar izaten duenean, gutxienez ere egunean behin, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, edo bere autonomia pertsonalerako noizbehinkako laguntzaren edo laguntza mugatuaren beharra duenean.
2. gradua. Mendekotasun larria: pertsona batek laguntza behar izaten duenean, egunean bi edo hiru aldiz, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, baina zaintzaile baten etengabeko laguntza behar izanik gabe, edo bere autonomia pertsonalerako laguntza zabalaren beharra duenean.
3. gradua. Mendekotasun handia: pertsona batek laguntza behar izaten duenean, egunean zenbait aldiz, eguneroko bizitzako oinarritzko zenbait jarduera egiteko eta, autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo zentzumenezkoa galdu izateagatik, beste pertsona baten nahitaezko laguntza jarraitua behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokortuaren beharra duenean.

Mendekotasunari buruzko Legeak adierazten du mendekotasun graduak zehaztuko direla Gizarte Zerbitzuen eta AMASen Lurralde Kontseiluan erabakiko den baremoa aplikatuz, zeina errege dekretu bidez onetsiko baita. Horrela, otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuak ezartzen du mendekotasun egoera baloratzeko baremoa.

Baremo horretan protokolo bat jasotzen da, jarraitu beharreko prozedurak eta teknikak zehazten dituen, bai eta mendekotasun gradu bakoitzari dagokion puntuazio-tarteak ere. Oinarri gisa hartzen ditu galdesorta bat eta baloratu beharreko pertsonaren zuzeneko behaketa, profesional trebatu batek eginikoa; pertsonaren ohiko ingurunean aplikatuko da, bai etxeko bai etxetik kanpoko ohiko ingurunean egiten diren jardueren eta eginkizunen multzo bat baloratuz.

Oinarritzko jarduera horietako bakoitzerako, adinaren arabera ponderaturiko eginkizun-multzo bat jasotzen duten taula batzuk ezartzen dira; halaber, beste taula batzuetan adierazten dira eginkizun-betetzearen heina, horri loturiko problemak eta laguntza pertsonalaren norainokoa. Eginkizun bakoitzari pisu espezifiko bat aplikatzen zaio guztizko puntuazioaren gainean, adin-tartearen araberrako bereizketak eginez.

Baloraturiko pertsonaren mendekotasunaren gradua zehazten da azken puntuazioan oinarriturik, ondoko eskalari jarraituz:

Mendekotasun gradua	Amaierako puntuazioa
Mendekotasun handia	75etik 100 puntura bitartean
Mendekotasun larria	50etik 74 puntura bitartean
Mendekotasun arina	25etik 49 puntura bitartean

Baremo horren aplikatzaileari dagokionez, Mendekotasunari buruzko Legeak adierazten du balorazio organoak autonomia erkidegoek zehaztuko dituztela, horien osakerari eta jardunari buruzko irizpide komun batzuei jarraituz, zeinak publikoak eta Lurralde Kontseiluak erabakitakoak izanen baitira. Balorazio organo horiek mendekotasun gradu eta mailari buruzko irizpen bat emanen dute, kasuko pertsonak behar izan litzakeen zaintzak ere zehaztuko dituena.

BALORAZIO PROZEDURA

Behin eskaerak jaso eta erregistratu ondoren, mendekotasunaren arloan eskuduna den unitate administratiboak eskatzaileari jakinaraziko dio zein egunetan eta zein ordutan joanen diren haren etxebizitzara, mendekotasuna baloratzeko baremoa aplikatzeko, edo hiru urtetik beherako kasuan, berariazko baloraziorako eskala aplikatzeko.

Aparteko kasuetan, justifikatutako inguruabar pertsonal eta familiarrengatik eskatzailearen balorazioa bere etxebizitzan egiterik ez dagoenean, unitate administratibo eskudunak balorazioa beste toki batean egitea erabaki ahalko du.

Mendekotasun egoerari buruzko balorazioa egiteko, kontuan hartuko da mendekotasuna baloratzeko baremoa edo, hiru urtetik beherako kasuan, berariazko balorazioari buruzko eskala. Gainera, interesdunari buruzko hurrengo txostenak hartuko dira kontuan: osasun txostena eta bizi den inguruenari buruzko txostena; halaber, kontuan hartuko dira, kasua bada, agindu zaizkion laguntza teknikoak, ortesiak eta protesiak.

Aparteko kasuetan, balorazio taldeak entitate desberdinei eskatu ahalko zaizkie beharrezkotzat jotzen dituen txosten osagarriak edo argibide-txostenak, espedientean dauden aurrekarien edukia edo interesdunaren inguruabar bereziak direla eta hori gomendagarritzat jotzen denean.

Mendekotasunaren arloan eskuduna den unitate administratiboaren aurrean behar bezala kreditatutako larrialdi kasuetan, unitate administratibo horren arduradunak behar diren tresnak ezarriko ditu kasuko balorazio taldeak eskatzailea lehentasunez baloratzeko.

Balorazioa ezinezkoa denean interesdunari egoztekoak diren arrazoiak direla eta, organo eskudunak agiri bidezko behar den komunikazioa egingen du, eta berariaz ohartaraziko du ezen, hiru hilabete iragan ondoren, prozedura iraungitza joko dela. Epe hori errekerimendua egin zaion partikularrak behar diren jarduerak egin gabe iraganez gero, organo eskudunak erabakiko du jarduerak artxibatzea, eta interesdunari jakinaraziko dio hori.

Mendekotasun egoerari buruzko aitortpenaren eskabidea ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, eskabidea sartzen denetik kontaktzen hasita.

4. Banakako Arreta Programa (BAP)

BAPa nahitaezko dokumentua da Nafarroan indarrean dagoen Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroko mendekotasunagatiko prestazio bermatuak eskuratu ahal izateko. Jadanik aipaturiko otsailaren 15eko 1/2011 Legeak Nafarroan arautzen ditu programa horren betekizunak eta izapidetzea.

Behin interesdunaren mendekotasun egoerari buruzko balorazioa amaitu ondoren, balorazio horren graduak eta mailak indarra baldin badute abenduaren 14ko 39/2006 Legeko amaierako xedapenetako lehenengoan edo Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritakoaren arabera, arestian aipatutako 39/2006 Legearen 29. artikuluan aipatzen den BAPa prestatuko da.

Programa hori unitate administratibo eskudunaren bitartez gauzatuko da edo, kasua bada eta organo eskudunak baimena eman ondoren, hark eskuordetutako entitate publikoak egingen du.

BAPa egiterakoan, udalen oinarritzko gizarte zerbitzuen sare publikoko teknikariek igorritako txosten sozialari erreparatuko zaio.

Halaber, interesdunak edo BAPa prestatzeko behar den informazioa ematen duten beste entitate publiko batzuek aurkeztutako beste txosten tekniko batzuk hartu ahalko dira kontuan.

Programa horretan, interesdunaren mendekotasun egoerarako 39/2006 Legean edo Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako zerbitzu eta prestazioetatik, eskatzailearen premiei hobekien egokitzen zaizkien esku hartzeko moduak proposatuko dira, betiere prestazio ekonomikoetarako ezarritako berriazko baldintzak betetzen badira.

BAPak ezartzen baldin badu interesdunaren premietarako esku hartzeko modurik egokiena dela 39/2006 Legeko 15. artikuluan zehaztutako zerbitzu bat eta zerbitzu hori ez bazaio ematen ari, BAParen eraginkortasuna zerbitzua egiaz ematen hasten den dataren arabera izanen da. Pertsona interesdunari proposaturiko zerbitzua eskuratzea bidezkoa ez bada, AMASen edo Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako beste zerbitzu edo prestazio bat eskainiko zaio.

39/2006 Legeko 29.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, onuradunak eta, bidezkoa bada, haren familiak edo hura ordezkaten duen entitateak entzunaldiaren bitartez hartuko du parte BAPean proposaturiko aukerak hautatzerakoan, betiere AMASeko eta Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroko zerbitzu eta prestazioen sarean eskuragarri dagoenaren arabera.

Mendekotasun egoera baldin bada gaixotasun mentala diagnostikatu izanaren ondorio, Nafarroako Foru Komunitateko Plan Soziosanitarioa izanen da konponbide egokiena ematen diena mendekotasun egoeran gaixotasun horren ondorioz dauden pertsonen.

ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA

Banakako Arreta Programaren proposamena eginda, ardura duen organoak proposamenaren berri ematen die interesduna bizi den udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuei, osasun etxeari edo buruko osasun etxeari. Proposamen horrek orobat jasoko ditu alde aurretik eginiko balorazio teknikoak ezartzen duen mendekotasun egoera.

Parte hartzeko eta, kasua bada, hautatzeko aukera ematen zaie interesdunari eta, bidezkoa bada, haren familiari edo haren ordezkari diren tutoretza-entitateei. Betiere, interesdunari adieraziko zaio bizi den udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuei, osasun etxeari edo buruko osasun etxeari kontsulta egin behar diela, haren mendekotasun egoeraren arabera eta egoera soziofamiliarren arabera egokiena den erabakia hartzeko.

Baldin eta BAParen proposamenean gomendatzen bada egoitza batean sartzea eta espedientee-tan jasota dauden txostenetan egiaztatzen bada ezkontidearekin batera sartzeko borondate argia dagoela, egoera hori aintzat hartu ahalko da, proposamen horretan ohar gisa jasota, nahiz eta ezkontideak ez izan onartua mendekotasun egoera.

5. Ebazpenak eta prestazioen eraginkortasuna

Mendekotasun egoerari buruzko aitortpena eta AMASeko prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortpena egiteko proposamena.

Behin BAPa prestatuta, unitate administratiboak ebazpen proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari, zeinak zehaztu egingen baitu zer zerbitzu eta prestazio emanen zaizkion pertsona eskatzaileari.

Proposamen horretan ezarriko da, bidezkoa denean eta kasuko inguruabarren arabera, gehienez ere zer epetan egin beharko den, baldin eta egin behar bada, erabakitako graduaren eta mailaren lehen berrikuspena.

Mendekotasun egoerari buruzko aitortpena eta AMASeko prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortpena.

Mendekotasunaren arloko administrazio organo eskudunak kasuko ebazpenak ematen ditu; haien bidez ondokoak ezarriko ditu:

a) Eskatzailearen mendekotasun egoera, zehaztua eskubiderik duen mendekotasun prestazioak jasotzeko, dela 39/2006 Legeko azken xedapenetan lehenak ezarritako egutegiari dela Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritakoari jarraikiz. Orobat ezarriko da, bidezkoa denean eta kasuko inguruabarren arabera, gehienez ere zer epetan egin beharko den, baldin eta egin behar bada, erabakitako mendekotasun egoeraren lehen berrikuspena.

b) BAPa, zeinetan jasoko baita 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuetarik eta prestazioetarik zein diren egokienak eskatzailearentzako laguntza ziurtatzeko.

Prestazioa edo zerbitzua ematen duen administrazio ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da. Epe hori eskabidea aurkezten den egunean hasiko da zenbatzen.

Horren ondorioetarako, espedientea geldiarazita egon den epea ez da aintzat hartuko eskatzaileari egotzi zaizkion arrazoiengatik izan bada.

Salbuespenez, giza baliabideak nahiz baliabide materialak agortuta, organo eskudunak prozedura ebazteko gehieneko epea luzatu ahalko du, kontuan hartuta aurkeztutako eskaera kopurua eta pertsona ukituen kopurua zein den edo epea luzatzeko administrazio ebazpenean espresuki zehazten diren beste inguruabar batzuk.

Mendekotasun egoerari buruzko aitortenak Espainiako Estatuko lurralde osoan izanen du balioa.

BAPAREN ERAGINKORTASUNA

Mendekotasun egoerari buruzko aitortena eta AMASeko prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortenean jasota ageriko da zein egunetatik hasita izanen diren eraginkorrak BAPean jasotako zerbitzuak eta prestazioak.

BAPean egoitzako laguntza zerbitzu bat hartzea jasotzen baldin bada, Mendekotasun egoerari buruzko aitortenaren eta AMASeko prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortenaren kopia bat igorriko zaio egoitzako zuzendariari, programa horren jarraipena egin dezaten errazte aldera.

ERREKURTSOAK

AMASeko prestazioetarako eta zerbitzuetarako eskubidea aitortzen duen administrazio-ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

6. Prestazioetarako eskubidearen berrikuspenak eta azkentzea

MENDEKOTASUN EGOERA ETA SISTEMAKO PRESTAZIOAK BERRAZTERTZEA

Aitortutako mendekotasun gradua eta maila eta BAPa berraztertu ahalko dira, banaka nahiz biak batera, ondoko artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Mendekotasun egoeraren gradua eta maila, BAPa edo horiek biak berraztertzekeko prozedurak ebazteko epea sei hilekoa izanen da.

MENDEKOTASUN EGOERA BERRAZTERTZEA

Mendekotasun egoera abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 30. artikuluan ezarritako zioengatik berraztertu ahalko da; prozedura ofizioz abiarazi ahalko du administrazio-organoko eskudunak, bai eta interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskatuta ere.

Berraztertzekeo eskaerarekin batera, egoera aldatu izana behar bezala kreditatzen duten txosten guztiak –osasun faktoreak, okerragotu edo hobetu izanari buruzkoak– aurkeztu beharko ditu interesdunak, aldaketa behar bezala egiaztatze aldera. Mendekotasun egoeraren berrazterketa ukatuko zaie aldaketa horiek kreditatzen ez dituzten interesdunei.

BAPAREN BERRIKUSPENA

BAPa berraztertu ahalko da:

- a) Interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskatuta.
- b) Ofizios programa onetsi zuen administrazio organoak.

Nolanahi ere, beste erkidego batetik etortzeagatik bizilekua aldatzen baldin bada, BAPa berraztertu ahalko da, bai alde batek eskatuta bai ofizios administrazio organo eskudunak.

BAPean aitortutako prestazioak ondoko kasuetan aldatu ahalko dira:

- a) Mendekotasun gradua edo maila edo onuradunaren egoera pertsonala aldatzeagatik.
- b) Gradua edo maila aitortzeko ezarritako betekizunak edo baldintzak aldatzeagatik.
- c) Onuradunak 39/2006 Legean ezarritako eginbeharrak ez betetzeagatik.
- d) Prestazio edo zerbitzu berriak sortzeagatik, horien intentsitatea areagotzeagatik edo zerbitzuaren nahiz sistemaren sareko egoitzaren eskuragarritasunarengatik, baldin eta aitortutako prestazioa zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomia bada.

Berraztertze prozedurari aplikatzekoa izanen da, bidezkoa denean, BAPa prestatze aldera foru lege honetan ezarritakoa.

BAParen berrazterketa eskatzeko epea lehengo programa egin zenetik urtebetekoa izanen da guxtienez, baldin eta aldaketa interesdunak eskatuta egiten bada. Epe hori ez da aplikatuko baldin eta osasun nahiz gizarte arloko txostenen arabera justifikatuta badago BAPa behar baino lehenago berraztertze beharra.

PRESTAZIOETARAKO ESKUBIDEA AZKENTZEKO ARRAZOIAK

AMASeko prestazioak jasotzeko eskubidea azkenduko da onuradunak ondoko egoeretakoren batean dagoenean:

- a) Bertan bizitzeari uztea edo bizilekua Espainiako lurraldetik kanpora eramatea urtebetetik gora.
- b) Prestazio bakoitza jasotzeko eskubidea aitortze aldera eskatzen diren baldintza edo betekizun berriazkoetarik bat ez betetzea.
- c) Prestazio edo laguntza bateraezin bat jasotzea.
- d) Hiltzea. Prestazio sortu baina ordaindu gaberik baldin badago, ordaindu egingen da alderdi legitimoak eskatuz gero. Heriotza gertatu den hileko azken egunera artekoa ordainduko da.
- e) Mendekotasun gradua eta maila aldatzea, aldaketa horrek prestazioa edo zerbitzua jasotzeko eskubidea galtzea baldin badakar.

Familiaren esparruko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalari laguntzeko prestazio ekonomikoaren titularrak ez du prestazio hori jasotzeko eskubidea galduko, egoitza-laguntzako zerbitzu batean aldi baterako egoteagatik zaintzaile ez-profesionalaren prestakuntza, atsedean edo gaixotasun aldi bat dela-eta, non eta aldi hori ez den urtean hiru hilabetetik gorakoa.

BERRAZTERKETEN ETA AZKENTZEEN ERAGINGARRITASUNA

Berrazterketak aitortu den zerbitzuaren intentsitatea edo edukia aldatzea nahiz zerbitzua azkentzea baldin badakar, aldaketa edo azkentze horren eragingarritasuna, oro har, hori ezartzen duen ebazpena ematen den egunaren biharamunean ezarriko da.

Aldaketak prestazio ekonomiko baten kopuruari eragiten baldin badio edo hura azkentzea baldin badakar, aldaketa edo azkentzea ekarri duten inguruabarrak aldatu ondoko hilabeteko lehen egunetik aitzina izanen ditu ondorioak.

7. AMASen eragingarritasuna

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, kasuan kasuko organo eskudunen bidez, esaterako ikuskaritza-zerbitzuen edo oinarritzko gizarte zerbitzuen bidea, AMASetik heldu diren funts publi-

koak, prestazioak, zerbitzuak nahiz onura guztiak behar bezala erabili eta aplikatuko direla zainduko du.

Mendekotasun egoeran dagoen pertsona bizi den udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuek bere lurraldean BAPa behar bezala aplikatzearen eta, kasua bada, onuradunaren egoerari egokitzearen jarraipena egiten lagunduko dute.

Pertsona hori Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldeko administrazio publikoaren titulartasuneko baliabide baten erabiltzailea bada eta baliabide hori AMASen bitartez jaso badu, zentroko zuzendariak eta gizarte-langileek ere lagunduko dute zerbitzuaren onuradunari BAPa zuzen aplikatzearen jarraipena egiten.

AMASeko prestazioen onuradun oro eta, kasua bada, haien ordezkariak, jakinarazi egin beharko dute aitortuak dituzten prestazioak jasotzeko eskubideari, edukiari edo intentsitateari eragiten ahal dieten inguruabarretan gertatzen den aldaketa oro, aldaketa gertatu eta hogeita hamar eguneko epean.

Betebehar hori bete ezean, baldin eta horren ondorioz jaso behar ez ziren zenbatekoak jaso badira edo zerbitzuen kostuan behar adinako parte hartzerik izan ez bada, onuradunak zenbateko horiek itzuli beharko ditu edo kasuko aldea ordaindu behar izanen du.

4. ERANSKINA. NAFARROAKO POPULAZIOARI BURUZKO ESTADISTIKA DATUAK. HIRUGARREN ADINARI ETA EZGAITUEI BURUZKO AIPAMEN BEREZIA

A. Nafarroako populazioaren datu orokorrak (2008-2012)

Azterturiko aldirako (2008tik 2012ra), ondorio hauek azpimarratzen ditugu:

- Estatistika Institutu Nazionalak autonomia-erkidegoaren arabera eginiko guztizko populazioaren kalkuluari jarraituz, ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean honakoa da Nafarroako biztanleriaren bilakera:

Urtea	Biztanleria	Indizea
2008	620.377	100
2009	630.578	101,64
2010	636.924	102,67
2011	642.051	103,49
2012	644.566	103,90

Beraz, azterturiko epean Nafarroako biztanleriak ehuneko 3,9ko gorakada izan du. 2012an, Nafarroako populazioaren ehuneko 11 inguru atzerritarra da.

Hona datuak, biztanle-tarteka:

Tartea	2008	2009	2010	2011	2012
0-15 urtekoak	91.349	94.636	97.146	99.090	100.282
16-65 urtekoak	422.009	427.109	429.208	429.844	429.157
+ 65	107.019	108.833	110.570	113.117	115.127
Guztira	620.377	630.578	636.924	642.051	644.566

Tartea	2008	2012
0-15 urtekoak	14,72	15,56
15-65 urtekoak	68,02	66,58
+ 65	17,25	17,86
Guztira	% 100	% 100

15 urtetik beherako populazioak ehuneko 9,78ko gorakada izan du; 65 urtez gorakoak, ehuneko 7,58koa; eta beste tartekak, hots, populazio aktibotzat jo ohi denak, ehuneko 1,69koa. Banaketa horrek erlatiboki gehitu egiten du mendekotasun-indizea zentzu demografikoan; hau da, 15 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak.

Nafarroan bizi diren 65 urtetik gorakoek biztanle guztien ehuneko 18 egiten dute. Biztanleria-tarte horretan, 85 urtez gorakoek ehuneko 16 egiten dute –18.500 pertsona inguru–.

- Ondoko koadroan jasotzen da jaiotza-unekeo bizi-itxaropenari buruzko adierazlea, bai Nafarroako populazioarena, bai Estatukoarena, sexuen arabera:

Jaiotzako bizi-itxaropena	1991		2011	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Nafarroa	74,75	81,59	80,76	86,06
Espainia	73,50	80,67	79,16	84,97

Hau da, aldi horretan emakumeen jaiotzeko uneko bizi-itxaropenak 4,47 urtetan egin du gora; gizonetzkoarenak, berriz, 6,01 urtetan egin du gora. Bi aldietan, Nafarroako balioa Espainiako batez bestekoaren gainetik dago.

B. Biztanleria-proiekzio demografikoak

INEk 2012ko abenduan argitaratu zuen 2022ko urtarrilaren 1eko biztanleria kalkulatzeko epe laburko proiektzio demografikoa. Hona emaitzak:

	Benetako biztanleria 2012-01-01ean	Zenbatetsitako biztanleria 2022-01-01ean	Aldaketaren ehunekoa 2022-2012
Nafarroa	644.566	612.839	-4,9
Espainia	47.265.321	45.058.581	-4,7

Nafarroako biztanleak guztira 612.839 izanen dira 2022an, hau da, biztanleriak ehuneko bost eginen du behera 2012tik ordura arte. Estatuko jaitziera-portzentajea ere parekoa da.

Erakunde horrek, bere proiektzio demografikoetan, aztertutako epeko migrazioen guztizko saldoaren analisia egiten du, eta oraingoan emaitza hauek lortu ditu:

2012-2021			
	Immigratzaileak, guztira	Emigratzaileak, guztira	Migrazioen saldoa, guztira
Nafarroa	47.953	67.184	-19.231
Espainia	3.877.094	5.182.400	-1.305.305

Migrazioen guztizko saldoa 2021ean negatiboa izanen da bai Nafarroan bai Espainian, eta horrenbestez murriztu egingo da biztanleria osoa, egindako proiektzioen arabera.

Biztanleria egoiliarren proiektzioa biztanle-tarteka eginda, mendekotasun tasaren zenbatespen hau lortzen da 2022rako:

	<16 urte		>65 urte		Aktiboak		Guztira		Mendekotasun tasa	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2022	98.233	7.084.444	134.961	9.486.723	379.645	28.487.415	612.839	45.058.581	58,2	61,4

Taulan ageri denez, demografiaren ikuspuntutik mendekotasuna duten biztanleek (16 urtetik beherako biztanleak eta 65 urtetik gorakoak, aktibo guztien artean) biztanleria osoaren ehuneko 58 eginen dute 2022an Nafarroan eta ehuneko 61 Espainian.

C. Nafarroako hirugarren adineko populazioa

Ondoko adierazleak aztertu dira:

- Zahartze indizea, edo 65 urtez gorako biztanleen ehunekoa guztizko biztanle kopuruaren gainean.

	2008	2009	2010	2011	2012
Nafarroa	17,25	17,26	17,36	17,62	17,86
Espainia	16,54	16,65	16,87	17,15	17,40

Ikusten denez, Nafarroako portzentajeak egonkor dirau, zertxobait egiten du gora eta Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da, baina azken horren hazkundera nabarmenagoa izan da Foru Komunitatekoa baino.

- Hona hemen 65 urteko biztanleriak ehuneko zenbatean gaintzen duen 15 urtetik beherakoa, hots, noraino gaintzen duen biztanleria zaharrak biztanleria gaztea:

	2008	2009	2010	2011	2012
Nafarroa	1,13	1,12	1,11	1,11	1,11
Espainia	1,07	1,06	1,06	1,07	1,08

Nafarroan portzentajea apur bat jaisten da 2010era arte eta ez da aldatzen urte horretatik 2012ra arte. Estatukoa baino handixeagoa da.

- 85 urtetik gorako populazioaren eta 65 urtetik gorakoen multzo osoaren artean dagoen erlazioa. Honako indize hau lortzen da:

	2008	2009	2010	2011	2012
Nafarroa	14,44	14,84	15,28	15,70	16,09
Espainia	12,29	12,71	13,16	13,56	14,04

85 urte baino gehiagoko biztanleak –2012an 18.500 pertsona inguru ziren– etengabeko hazkunde-joera agertzen du, eta, ehunekoetan, handiagoa da batez besteko nazionalean ikusitakoa baino.

- Adin handikoen edo zahartzaroaren indizea. 85 urtez gorako biztanleen tarteak Nafarroako populazioaren guztizkoarekin alderatuta izandako bilakaera honela islatzen da ehunekoetan:

	2008	2009	2010	2011	2012
Nafarroa	2,49	2,56	2,65	2,77	2,87
Espainia	2,03	2,12	2,22	2,33	2,44

Taulan ageri denez, populazio horren pisu espezifikoa gora egiten ari da bai Nafarroan zein Estatu osoan, eta Foru Komunitatean handiagoa da.

5. ERANSKINA. AUTONOMIARAKO ETA MENDEKOTASUNAREN ARRETARAKO SISTEMAREN ESTADISTIKAK. 2013ko MARTXOAREN 31ko EGOERA

Iturria: SAAD-IMSERSO, Balorazio, Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendariordetza Nagusi Atxikiko Estatistika Zerbitzua


1. Eskaerak. 2013ko martxoaren 31ko egoera

Lurralde-esparrua	Eskaeren kopurua	Ehunekoa, eskaera kopuru osoaren gainean	Biztanle kopurua ⁽¹⁾	Ehunekoa, autonomia erkidego bakoitzeko biztanle kopuru osoaren gainean
Andaluzia	402.322	24,6	8.449.985	4,8
Aragoi	46.949	2,9	1.349.467	3,5
Asturiasko Printzerria	35.185	2,1	1.077.360	3,3
Balear Uharteak	24.228	1,5	1.119.439	2,2
Kanariar Uharteak	40.249	2,5	2.118.344	1,9
Kantabria	24.306	1,5	593.861	4,1
Gaztela eta León	104.443	6,4	2.546.078	4,1
Gaztela-Mantxa	88.647	5,4	2.121.888	4,2
Katalunia	278.922	17,0	7.570.908	3,7
Valentziako Erkidegoa	107.631	6,6	5.129.266	2,1
Extremadura	47.402	2,9	1.108.130	4,3
Galizia	86.898	5,3	2.781.498	3,1
Madrilgo Erkidegoa	174.846	10,7	6.498.560	2,7
Murtziako Eskualdea	54.819	3,3	1.474.449	3,7
Nafarroako Foru Komunitatea	17.416	1,1	644.566	2,7
Euskal Autonomia Erkidegoa	85.088	5,2	2.193.093	3,9
Errioxa	14.492	0,9	323.609	4,5
Ceuta eta Melilla	3.906	0,2	164.820	2,4
Guztira	1.637.749	100,0	47.265.321	3,5

Iturria: SAAD-IMSERSO, Balorazio, Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendariordetza Nagusi Atxikiko Estatistika Zerbitzua

(1) 2012ko urtarrilaren 1eko biztanle kopuruak INEren arabera.

2. Eskatzailearen profila (Estatua)



Gizonezkoak: 35
 Emakumeak: 65
 % 100

3. Irizpenak. 2013ko martxoaren 31ko egoera

Lurralde-esparrua	Eskaerak		Irizpenak		III. gradua		II. gradua		I. gradua (1)		Prestaziorako eskubidea duten onuradunen guztizko kopurua	
	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Eskabideen ehunekoa	Kopurua	Irizpenen ehunekoa	Kopurua	Irizpenen ehunekoa	Kopurua	Irizpenen ehunekoa	Kopurua	Irizpenen ehunekoa
Andaluzia	402.322	24,57	360.189	89,53	86.465	24,01	115.179	31,98	37.497	10,41	239.141	66,39
Aragoi	46.949	2,87	45.780	97,51	11.281	24,64	13.735	30,00	4.001	8,74	29.017	63,38
Asturiasko Printzerria	35.185	2,15	33.195	94,34	7.922	23,87	8.302	25,01	2.801	8,44	19.025	57,31
Balear Uharteak	24.228	1,48	23.527	97,11	5.907	25,11	7.539	32,04	2.141	9,10	15.587	66,25
Kanariar Uharteak	40.249	2,46	29.862	74,19	12.262	41,06	9.450	31,65	2.579	8,64	24.291	81,34
Kantabria	24.306	1,48	24.139	99,31	6.917	28,65	7.179	29,74	1.976	8,19	16.072	66,58
Gaztela eta León	104.443	6,38	99.785	95,54	29.966	30,03	27.142	27,20	7.618	7,63	64.726	64,87
Gaztela-Mantxa	88.647	5,41	84.560	95,39	20.336	24,05	21.712	25,68	7.518	8,89	49.566	58,62
Katalunia	278.922	17,03	271.628	97,38	60.228	22,17	85.488	31,47	21.023	7,74	166.739	61,39
Valentziako Erkidegoa	107.631	6,57	105.650	98,16	26.038	24,65	30.965	29,31	10.274	9,72	67.277	63,68
Extremadura	47.402	2,89	45.457	95,90	12.027	26,46	11.440	25,17	3.098	6,82	26.565	58,44
Galizia	86.898	5,31	83.662	96,28	27.136	32,44	27.012	32,29	6.698	8,01	60.846	72,73
Madrilgo Erkidegoa	174.846	10,68	169.152	96,74	43.169	25,52	44.178	26,12	14.565	8,61	101.912	60,25
Murtziako Eskualdea	54.819	3,35	44.531	81,23	14.415	32,37	14.727	33,07	4.972	11,17	34.114	76,61
Nafarroako Foru Komunitatea	17.416	1,06	16.960	97,38	3.076	18,14	4.737	27,93	1.655	9,76	9.468	55,83
Euskal Autonomia Erkidegoa	85.088	5,20	79.673	93,64	17.023	21,37	22.205	27,87	7.176	9,01	46.404	58,24
Errioxa	14.492	0,88	14.488	99,97	3.466	23,92	3.681	25,41	680	4,69	7.827	54,02
Ceuta eta Melilla	3.906	0,24	3.758	96,21	857	22,80	991	26,37	214	5,69	2.062	54,87
Guztira	1.637.749	100,00	1.535.996	93,79	388.491	25,29	455.662	29,67	136.486	8,89	980.639	63,84

(Iturria: SAAD-IMSERSO, Balorazio, Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendariordetza Nagusi Atxikiko Estatistika Zerbitzua)

(1) Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuak aldaketak egin ditu Mendekotasunari buruzko Legearen azken xedapenetako lehenean, pertsona onuradunen eskubideen eraginkortasunari buruzkoan. Aipatutako arauan xedaturik dagoenez, multzo honetan sartu dira 2011ko abenduaren 31n 1. graduko 2. mailako balorazioa jasoa eta BAPa onartua zuten pertsona onuradunak eta, halaber, egun horretan, BAPik izan gabe, gauditua zutenak ebazpena emateko legez ezarritako epea (eskaera aurkezten den egunetik hasita sei hilabete, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera).

4. Graduak eta mailak. 2013ko martxoaren 31ko egoera

Lurralde-esparrua	Irizpenak	III. gradua 2. maila	III. gradua 1. maila	III. gradua	II. gradua 2. maila	II. gradua 1. maila	II. gradua	I. gradua 2. maila	I. gradua 1. maila	I. gradua	Gradurik gabe
	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua
Andaluzia	360.189	34.513	51.866	86	43.144	71.952	83	39.958	58.398	833	59.356
Aragoi	45.780	3.653	6.990	638	4.839	8.077	819	4.906	6.938	1.369	7.551
Asturias	33.195	3.173	4.237	512	3.030	4.636	636	3.328	4.964	932	7.747
Balear Uharteak	23.527	1.699	3.833	375	2.793	4.156	590	2.262	2.788	1.310	3.721
Kanariar Uharteak	29.862	4.718	6.754	790	4.005	4.704	741	2.679	2.704	0	2.767
Kantabria ¹	24.139	2.502	3.922	493	2.879	3.718	582	2.373	3.038	586	4.046
Gaztela eta León ¹	99.785	11.056	16.643	2.267	10.658	14.093	2.391	9.118	12.330	2.725	18.504
Gaztela-Mantxa	84.560	6.900	11.868	1.568	7.868	12.141	1.703	8.443	14.611	2.662	16.796
Katalunia ¹	271.628	18.529	39.768	1.931	31.032	49.761	4.695	26.211	40.688	13.209	45.804
Valentziako Erkidegoa ¹	105.650	9.507	14.599	1.932	11.264	16.938	2.763	10.652	13.488	3.685	20.822
Extremadura	45.457	4.560	6.540	927	4.239	6.129	1.072	3.589	6.272	2.199	9.930
Galizia ¹	83.662	10.409	14.907	1.820	10.821	14.357	1.834	8.043	9.994	1.917	9.560
Madril ¹	169.152	15.813	23.049	4.307	17.548	21.746	4.884	16.942	20.107	5.505	39.251
Murtzia ¹ (*)	44.531	6.308	8.106	1	6.287	8.440	0	4.985	6.194	0	4.210
Nafarroa ¹	16.960	1.259	1.438	379	1.500	2.669	568	1.761	2.804	925	3.657
EAE ¹	79.673	5.178	10.716	1.129	7.855	12.530	1.820	8.162	12.469	3.271	16.543
Errioxa	14.488	1.466	1.785	215	1.229	2.220	232	899	1.981	481	3.980
Ceuta eta Melilla	3.758	291	458	108	358	477	156	252	441	126	1.091
Guztira	1.535.996	141.534	227.479	19.478	171.349	258.744	25.569	154.563	220.209	41.735	275.336

Iturria: SAAD-IMSERSO, Balorazio, Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendariorde Nagusi Atxikiko Estatistika Zerbitzua

(1) Organo kudeatzaileak ez du erabiltzen AMASeko informazio sistemaren aplikazio informatikoa.


5. Prestazioak dauzkaten onuradunak, autonomia erkidegoetako populazioarekin alderatuta. 2013ko martxoaren 31ko egoera

Lurralde-esparrua	Prestazioak dauzkaten onuradunak	Ehunekoa, prestazioak dauzkaten onuradunen guztizko kopuruaren gainean	Biztanle kopurua ⁽¹⁾	Ehunekoa, autonomia erkidego bakoitzeko biztanleen guztizko kopuruaren gainean
Andaluzia	183.186	24,2	8.449.985	2,2
Aragoi	19.788	2,6	1.349.467	1,5
Asturiasko Printzerria	15.566	2,1	1.077.360	1,4
Balear Uharteak	9.487	1,3	1.119.439	0,8
Kanariar Uharteak	11.756	1,6	2.118.344	0,6
Kantabria	14.252	1,9	593.861	2,4
Gaztela eta León	62.278	8,2	2.546.078	2,4
Gaztela-Mantxa	37.389	4,9	2.121.888	1,8
Katalunia	139.531	18,4	7.570.908	1,8
Valentziako Erkidegoa	41.137	5,4	5.129.266	0,8
Extremadura	19.541	2,6	1.108.130	1,8
Galizia	39.785	5,3	2.781.498	1,4
Madrilgo Erkidegoa	80.391	10,6	6.498.560	1,2
Murtziako Eskualdea	25.381	3,4	1.474.449	1,7
Nafarroako Foru Komunitatea	8.584	1,1	644.566	1,3
Euskal Autonomia Erkidegoa	39.289	5,2	2.193.093	1,8
Errioxa	7.163	0,9	323.609	2,2
Ceuta eta Melilla	1.919	0,3	84.018	2,3
Guztira	756.423	100,0	47.265.321	1,6

Iturria: SAAD-IMSERO, Balorazio, Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendariorde Nagusi Atxikiko Estatistika Zerbitzua

(1) Estatistika Institutu Nazionala: INEBASE Udal errolda 2012ko urtarrilaren 1ean.

6. Prestazioa daukan onuradunaren profila (Estatua)



Gizonezkoak: 33
 Emakumeak: 67
 % 100

7. Onuradunak eta prestazioak. 2013ko martxoaren 31ko egoera

Lurralde-esparrua	Prestazioak dauzkaten onuradunak		Mendekotasunaren prebentzioa eta aut. pertsonalaren sustapena		Telelaguntza		Etxez etxeko laguntza		Eguneko/gaueko zentroak		Egoitza-arreta		Zerbitzuarekin lotutako P.E.		Familian zaintzeko P.E.		Lag. pertsonalerako P.E.		Guztira		Prestazioen ratioa, onuradun bakoitzeko
	Kopurua	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Kopurua
Andaluzia	183.186	0	0,00	63.695	25,37	48.002	19,12	12.412	4,94	20.201	8,05	3.132	1,25	103.623	41,27	15	0,01	251.080	100,00	1,37	
Aragoi	19.788	0	0,00	0	0,00	0	0,00	1.042	5,26	3.047	15,39	3.446	17,40	12.265	61,94	0	0,00	19.800	100,00	1,00	
Asturiasko Printzerria	15.566	7	0,04	829	4,56	2.430	13,36	1.755	9,65	2.948	16,21	1.566	8,61	8.647	47,56	1	0,01	18.183	100,00	1,17	
Balear Uharteak	9.487	2	0,02	0	0,00	0	0,00	828	8,50	1.876	19,26	270	2,77	6.764	69,45	0	0,00	9.740	100,00	1,03	
Kanariar Uharteak	11.756	43	0,36	0	0,00	0	0,00	2.528	21,44	2.668	22,63	202	1,71	6.349	53,85	0	0,00	11.790	100,00	1,00	
Kantabria	14.252	0	0,00	1.213	7,62	1.085	6,82	1.273	8,00	3.771	23,70	0	0,00	8.570	53,86	0	0,00	15.912	100,00	1,12	
Gaztela eta León	62.278	7.820	9,97	4.369	5,57	9.423	12,02	6.971	8,89	8.634	11,01	15.765	20,10	25.398	32,39	40	0,05	78.420	100,00	1,26	
Gaztela-Mantxa	37.389	1.775	3,42	6.696	12,89	6.599	12,71	1.661	3,20	8.674	16,70	2.391	4,60	24.133	46,47	7	0,01	51.936	100,00	1,39	
Katalunia	139.531	3.022	1,68	16.544	9,17	17.485	9,69	7.651	4,24	17.426	9,66	13.539	7,51	104.699	58,04	17	0,01	180.383	100,00	1,29	
Valentziako Erkidegoa	41.137	344	0,70	8.234	16,74	0	0,00	3.316	6,74	11.619	23,62	3.950	8,03	21.729	44,17	2	0,00	49.194	100,00	1,20	
Extremadura	19.541	671	3,22	357	1,72	545	2,62	961	4,62	3.829	18,40	6.003	28,85	8.443	40,57	0	0,00	20.809	100,00	1,06	
Galizia	39.785	404	0,93	1.077	2,47	9.369	21,52	5.358	12,31	7.887	18,12	5.773	13,26	13.626	31,30	41	0,09	43.535	100,00	1,09	
Madrilgo Erkidegoa	80.391	5.062	5,11	14.082	14,22	22.683	22,91	12.220	12,34	19.074	19,26	5.590	5,65	20.276	20,48	25	0,03	99.012	100,00	1,23	
Murtziako Eskualdea	25.381	1.066	3,37	4.644	14,69	0	0,00	2.241	7,09	2.179	6,89	1.089	3,45	20.391	64,51	0	0,00	31.610	100,00	1,25	
Nafarroako Foru Kom.	8.584	47	0,46	913	8,99	508	5,00	231	2,27	1.786	17,58	876	8,62	5.795	57,05	1	0,01	10.157	100,00	1,18	
EAE	39.289	0	0,00	2.936	6,33	4.306	9,29	5.062	10,92	8.573	18,49	1.289	2,78	23.112	49,85	1.081	2,33	46.359	100,00	1,18	
Errioxa	7.163	622	5,74	1.466	13,54	2.029	18,73	774	7,15	1.309	12,09	481	4,44	4.150	38,32	0	0,00	10.831	100,00	1,51	
Ceuta eta Melilla	1.919	220	9,24	239	10,04	456	19,16	45	1,89	155	6,51	24	1,01	1.241	52,14	0	0,00	2.380	100,00	1,24	
Guztira	756.423	21.105	2,22	127.294	13,38	124.920	13,13	66.329	6,97	125.656	13,21	65.386	6,87	419.211	44,08	1.230	0,13	951.131	100,00	1,26	

Iturria: SAAD-IMSERSO, Balarazio, Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendariorde Nagusi Atxikiko Estatistika Zerbitzua